



Josetxo URRUTIA

Etxauriko Harria Txapelketa irabazi du → 40

www.ttipi.net

Orain funtzio berrieekin → 26

ARANTZA → 16

Pelle Ttikiren alde Pirritx, Porrotx eta Marimotots

ZUBIETA → 20

Haziaren jaiaren larunbat honetan

GOIZUETA → 29

Txino auzoko festak maiatzaren 4 eta 5ean

ZUGARRAMURDI → 36


Eskual Titiriteroen Topaketa asteburuan



NAFARROAREN EGUNA 2012 | Apirileko azken igandean, Baigorriin

Konkistaren 500. urteurrena gogoratuko da

Egun osoko egitarau zabala prestatu du, aurten ere, Basaizea Elkarteak. Maiatzaren 1eko zubia parean izanik, eta eguraldiak lagunduz gero, jendetza bilduko da Baigorriko karriketan. → 35



Baserrian, merkatuan eta kontsumo taldean saltzen ditu bere barazki ekologikoak.

Berriki baratze gintza ekologikoaz ikastaroa eman du Arantzan, eta laster, Beran emanen du.

ELKARRIZKETA → 3

Josune ZAMORA | Baratze ekologikoa lantzen duen hondarribiarra

Barazki ekologikoen kontsumoa izugarri handitu da azken urteotan

Euskaraz Blai udalekuak antolatu dituzte aurten ere Arantza eta Beintzako aterpetxeek 8-15 urteko gaztetxoentzat

ERREPORTAJEA → 4-5

ZOKKETAK → 48



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra





WWW.MUEBLESORDOKI.COM

Plaza Zahara 27 Erakusketa-Gangara m.500m. 41001 BILBAO

949 637 780 telefonozko daturik gero
info@mueblesordoki.com helbete elektronikoa

ZERBITZUAK

PROIEKTU PERTSONALIZATUAK (gongola, argia, jantzi-eraketa) proiektu osoak osatuak dituzte eta proiektu osoak kudeatzen dituzte eta kontratu gabe.

ALTZARIEN MUNTAKIA

OSADARRIAK (muntak, berrak, jantzi-eraketa, e.e. argia, argia)

DEKORATZAILIA (Ezkerreko aldeko eraketa) (jantzi-eraketa) proiektu osoak osatuak dituzte eta kontratu gabe.



ERAKUSKETA ALDAKETA
DELA ETA **LIKIDAZIOA**

PRODUKTUAK

EGONGELAK
LOGELAK
GAZTEAK
ARMAIRUAK
ILUMINAZIOA



ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

TTIPI-TTAPA (irri urteko kopia) baino du: **TTIPI TXARTELA** dutenak, **ttipi** pagatuko dute urtearen azkenean. Errentaren Altzariaren 10eko itzuliko baitzate.

deskontuak	krodegak	nabiztasun eta detektak
<p>auto-talerrak</p> <p>BERAUTO (BERA) %5 errenta-erabatzen</p> <p>DATUCELAY (ELIZONDO) %10 batena eta amortiguatzen</p> <p>SANSIRENA (ELIZONDO) %5 oho aldiaren</p> <p>ZALAIN MOTOR (BERA) %5 errenta-erabatzen</p>	<p>estetikako zentruak</p> <p>AMAIA (DONEZTEBE) %5 kosmetika %10 operatzen 50€tik gora. Promozioetan ez</p> <p>ARRATE (DONEZTEBE) %10 "Skynoor Eternal" krema guzuzetan</p> <p>BEATRIZ (ELIZONDO) %10 makilaje, kosmetika eta turmetan</p>	<p>OREKA (LESAKA) %5 kontsulta eta produktuak.</p> <p>KIMETZ (DONEZTEBE) %5 kosmetika</p> <p>ELIKA (BERA) %5 kontsulta</p>
<p>auto-eraketa</p> <p>SEMPER (BERA) %10 matrikulan</p>	<p>eraketa zentruak</p> <p>ETAIA (DONEZTEBE) %10 makilaje, kosmetika eta turmetan</p>	<p>operatzen</p> <p>ALUSTIZA (DONEZTEBE) %10. 30€tik gora</p>
<p>argazki-eraketa</p> <p>AYLA (BERA) %10 karnet argazkietan.</p> <p>GOIKO (BERA) %10 kopia digitalak</p> <p>MENA (ELIZONDO) %10 kopia digitalak</p> <p>ZALDUA (DONEZTEBE/ELIZONDO) %10 produktuetan</p>	<p>eraketa zentruak</p> <p>ALZURI (LESAKA) %5 atxarritzen</p>	<p>op-eraketa</p> <p>INTZURI (LESAKA) %10 eguzkitako betaurrikoban</p> <p>OSTARGI (BERA) %5eko deskontua</p>
<p>bita-eraketa</p> <p>ETXARTE (LESAKA) %10eko deskontua</p>	<p>haurren gazte-eraketa</p> <p>POTTOKI (ELIZONDO) %5 operatzen artikuluetan</p>	<p>op-eraketa</p> <p>MENDAU (DONEZTEBE) %5 zakur eta kaluen pentuan</p>
<p>hizketa-eraketa</p> <p>KATEA-BIKE (BERA) %5 korpenketan</p>	<p>eraketa zentruak</p> <p>ALTZURI (LESAKA) %5 atxarritzen</p>	<p>op-eraketa</p> <p>OSTIZ (DONEZTEBE) %10 errenta-erabatzen</p> <p>TXINELKA (LESAKA) %10eko deskontua</p>
	<p>eraketa zentruak</p> <p>POSADA OITZ (OITZ) %10eko deskontua</p> <p>ELBETEKO POSADA (ELBETE) %10 kartan, 30€tik goraiko gastuan</p>	<p>eraketa zentruak</p> <p>NAFARPRESS (ELIZONDO) %10 iburu eta ikas materialak beste iburuak eta bideoak izan ezik</p> <p>MAMUR (LEITZA) %10 operatzen artikuluetan</p>

Kalitateko produktuak aurkitzea zaila zela ikusita, horretan hastea erabaki zuen Josune Zamorak 2002an, baratze ekologikoa landuz. Baratze ekologikoa egiten zuten Igeldoko baserri

batean hasi zen ikasten, eta aldi berean, Fraisoro nekazaritza-eskolan ikastaroak egiten. Bi urteren buruan, bere baratze ekologikoa lantzen hasi zen eta gaur egun, horixe du

lanbide. Baserrian, azokan eta kontsumo taldean saltzen ditu bere baratzki ekologikoak. Duela gutti baratze ekologikoaz ikastaroa eman du Arantzán, eta laster, Beran egingen du.

Josune ZAMORA | Baratze ekologikoa lantzen duen hondarribiarra

«Baratzegintza ekologikoa nekazaritzaren etorkizuna da»

G. PIKABEA

Zein dira baratze ekologikoa lantzeko oinarriko printzipioak?

Baratze ekologikoaren helburua lurraren eman-kortasuna zaintzea eta ahal bada, handitzea. Lurra osasuntsu izatea nahi dugu, lurrari jaten eman eta gero, landarea jartzen dugunean, lurrak berak eta bertako zomorroek landareari behar dutena ematea. Erabiltzen ditugun gauzak naturatik datozen substantziak dira, ezin dugu gai kimiko-sintetikorik erabili. Ongarria gorotzarekin egiten dugu, eta horrez gain, rotazioak edo txandaketak egiten ditugu, hau da, lursail batean laboreak aldatzen joaten gara, toki berean beti ez gauza berak landatuz. Elkartzeak edo asoziazioak ere egiten ditugu. Azenarioak jartzerakoan, adibidez, ondoan tipula jartzen dugu, tipularen usainak azenarioa kaltetzen duen eltxoa uxatzen duelako.

Eitxo eta izurriteekin zer egin daiteke?

Gaixotasunak eta izurriteak etortzen badira, badago zerekin tratatu, baina beti ere, naturatik etorrira behar du produktuak. Baina gure helburua dena orekan egotea da. Dena zaintzen badugu, izurriteak ez dira hain handiak. Gerta daiteke eguraldiagatik ondoak sortzea edo zorriak etortzea,



Josune Zamora hondarribiarra bere negutegietako batean.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

baina ez dute kalte handi-handirik egingo eta etortzen direnerako badi-ra zerekin tratatu. Izurrite bat etortzen denean, eguraldiagatik edo guk egin dugun zerbaitegatik ote den galdetu behar diogu gure buruari, lurra gaizki landu dugulako edota gehiegi ongarritu edo ureztatu dugulako izan daitekeelako.

Gaur egun zein da baserrietako joera?

Nik uste dut denak ahalik eta gai kimiko gutxien botatzen saiatzen direla. Baina ekologikoa izatea hori baino gehiago da, erakundeek kontrolatutako neurriak bete behar direlako. Euskal Autono-

EKOLOGIKOA NOLA?

«Ongarria gorotzarekin egiten dugu, eta horrez gain, rotazioak edo txandaketak ere egiten ditugu, hau da, lursail batean laboreak aldatzen joaten gara, toki berean beti ez gauza bera landatuz. Elkartzeak edo asoziazioak ere egiten ditugu. Azenarioak jartzerakoan, adibidez, ondoan tipula jartzen dugu, tipularen usainak azenarioa kaltetzen duen eltxoa uxatzen duelako»

mia Erkidegoan Euskadiko Nekazaritza eta Elidakura Ekologikoaren Kontseiluak kontrolatzen du, lurra eta landareak aztertzen dituzte, zein eta zenbat gorotz erabili eta bota den... Kontrol neurri horiengatik dira gure produktuak ekologikoak. Nafarroan Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak kontrolatzen du.

Baratze ekologikoa egitea garestiagoa da?

Bai. Batetik, hazi ekologikoak ohikoak baino garestiagoak dira. Eta bestetik, baratze ekologikoak lanordu gehiago eskatzen du. Belar txarrak aitzurraz edo eskuz ken-

tzen ditugu, herbizidarik gabe. Prebentzio lan gehiago egin behar da eta lanordu gehiago dira.

Ilargiaren arabera, nola lan egiten duzue?

Egutegi biodinamikoari egiten diogu kasu. Ilargia ilgora edo ilbehera izateari baino gehiago begiratzten diogu ilargia lurretik urrunago edo hurbilago dagoen. Baina lurra da garrantzitsuena, lurra ondo baldin badago begiraturako diogu ilargiari.

Kontsumitzaileak produktuko ekologikoengana gero eta interes handiagoa du...

Bai, hala da. Duela urte batzuk jendeak ezagutzen zituen, baina ez hainbeste. Orain eskaera gero eta handiagoa da eta gehiago egingo balira, gehiago salduko lirateke. Azken boladan gazteetan minbizia eta infertilidade kasu gehiago entzuten dira eta elikadurarekin zerikusia dutela ondorioztatzen da. Gainera, orain arte, naturari bizkarra emanda egin ditugu gauzak eta hori ezin dela konurtatzen ari gara. Bi arrazoi horiengatik ekologikoenganako interes handiagoa du jendeak.

Nola ikusten duzu baratzegintza ekologikoaren etorkizuna?

Nekazaritzaren etorkizuna da. Diru gutxi eta lan asko ematen du, baina satisfazioa handia da. Ea animatzen den jendea.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hainbat jarduera egiteko aukera izaten dute gaztetxoek Euskaraz Blai udalekuetan.

AISIALDIA ETA EUSKARA → UDALEKUAK ARANTZA ETA BEINTZAKO ATERPETXEETAN

Uda honetan ere ehunka gaztetxo pasako dira Arantza eta Beintzako aterpetxeetatik

Euskaraz Blai udalekuak antolatu dituzte aurten ere, Bertiz Partzuergo Turistikoaren laguntzarekin

8-15 urteko neska-mutilen artean euskararen erabilpena sustatzeko asmoz, aurten ere Euskaraz Blai udalekuak antolatu dituzte Arantzako Aterpe eta Beintzako

Ostatua aterpetxeek, Bertiz Partzuergo Turistikoarekin elkarlanean. Ekainaren 25etik irailaren 8ra bitarte hainbat eta hainbat gaztetxo etorriko dira bi herrietara.

G. PIKABEA

Euskararen erabilpena sustatu bidenabar, gazteek esperientzia aberasgarria izatea. Horixe da Euskaraz Blai euskarazko udalekuen

helburu nagusia eta horixe da Arantzako Aterpe eta Beintzako Ostata aterpetxeek ekimen hau antolatuz 8-15 urte bitarteko gaztetxoei eskaini nahi dietena.

Proiektuak 12 urte bete ditu aurten, eta agerikoa da erantzun ona izan duela. Horren lekuko dira zerbakiak: 2009an 900 gaztek parte hartu zuten udaleku hauetan,

2010ean –inongo diru-laguntzarik gabe– 600 gaztek eta joan den urtean 800ek baino gehiagok. Eta aurten ere iazko zerbakiari eustea espero dute. «Krisiaren marmua gainean dugula badakigu, inongo laguntzarik gabe gaude. Gure sektorea familiarra da, baina neurri batzuk hartuta, iazko zerbakiari eustea espero dugu. Baikorrak gara». Hala adierazi digute Mikel Albisu eta Xabier Zugarramurdik, Beintza eta Arantzako aterpetxeetako ordezkariak.

Ekaineko azken astean hasiko dute aurten go ibilbidea bi aterpetxeek. Orduan etorriko baitira udako lehenbiziko gaztetxoak: «Ikasturtea bukatuta, udalekuen trena abiatzen da, aurten hamaika bagoik osatua», diote Albisuk eta Zugarramurdik, irailaren 8ra arte ia mila lagunendako hamaika aste eskainiko baitituzte. Pres-

taketak, aldiz, lehenagotik hasten dituzte: «horrelako trenak lokomotora ona behar du eta urte hasieran hasten gara: kanpaina prestatu, matrikulazioa, txandak antolatu... Makinista onak ere badira, dena behar».

Nafarroakoak izaten dira Euskaraz Blai udalekuetan parte hartzen duten gehienak, proiektu hau abian paratu zuela Nafarroako Gobernuaren baitzen. Halere, 2010ean, Gobernuaren proiektua bertan behera uztea erabaki zuen eta Arantza eta Beintzako aterpetxeak bere gain hartu zuten honi guztia-ri segida emateko ardurara, Gobernuaren laguntzarik gabe. Azaldu digutenez, «gehienak Nafarroakoak dira, proiektua Nafarroan erro- tuta baitzen: Iruñerria, Lizarraldea, Tafallaldea eta Erriberakoak. Baina iazko kanpainan Euskal Herri osotik somatu g- nituen eskaerak».

Udalekuetara etor-
zen direnen euskara
mailan «alde handia»
dagoela erran digute Al-
bisuk eta Zugarramur-
dik: «udalekuak A eta D
ereduetan antolatzen di-
relako. A ereduaren ka-
suan, erdaldunak dira,
euskarekin kontaktua
eskolako ordu murrizet-
an dute. D ereduaren
kasuan, euskaldunak
izanik ere, erdarazko
joera erakusten dute,
beraien herrian horrela
aritzen direlako». Egu-
nerokoan euskaraz ari-
tzeko dituzten ozto-
poak alde batera utzita,
horretarako inguru apro-
posak dituzte Beintza
eta Arantza.

Euskaraz trebatzeko
aukera, ordea, ez da
gaztetxoei eskaintzen
zaien bakarra. Aterpe
eta Beintzako Ostatu-
ko arduradunen arabe-
ra, «esperientzia positi-

bo bat eskaintzen zaie,
hiru arlotan: lehenbizi-
koa elkarbizitza, lagun
berriak ezagutu eta
haiekin sei egun parte-
katzen dituztelako; bi-
garrena euskararena,
hizkuntza eguneroko bi-
zitzan erabiltzen dute-
lako (jolasetan, otordue-
tan...); eta hirugarrena,
Arantza eta Beintza-La-
baiengo herriek duten
ingurumen zoragarriaz
jardueren bidez goza-
tzeko aukera (mendia,
kobazuloak, basoa...).

Beraz, uda honetan
ere ehunka lagun ikusi-
ko ditugu bi herri haue-
tan eta eginen dituzten
ateraldien bidez, inguru-
koetan ere somatuko da
mugimendua. Bi ater-
petxeetan, berriz, ego-
naldietan gaztetxoak
«gustura sentitzen»
saiatuko dira. Albisu eta
Zugarramurdiren irudi-
ko, «garrantzitsuena»



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Euskaraz Blai udalekuen aurtengo kartela.

hori baita: «bakarrik eto-
rri bada lagun berriak
egitea, taldeka etorri ba-
dira lagun berriei zabal-
tzea...». Hortaz aparte,
zera gehitu dute: «ba-
tzuetan arazoa etxean

gelditzen da, gurasoek
gaztetxoaren falta so-
matzen dute, batez ere,
lehenbiziko esperientzia
denean. Gurasoekin
aurkezpen orokorra egi-
ten dugunean gaia az-

tertzen dugu: experien-
tzia bientzat da, gazte-
txoentzat eta gurasoen-
tzat, zenbait kasutan zil-
bor hestea ez baita moz-
tu oraindik eta lotura
handia da».

BERTIZ PARTZUERGO TURISTIKOAREN LAGUNTZAREKIN

Gobernuaren babesik gabe bada ere, proiektuarekin aitzinera

Euskaraz Blai udalekuen XII. edizioa da aurtengoa. Nafarroako Gobernuak lehenbiziko bederatzi edizioak antolatu zituen, baita diruz lagundu ere. Baina 2010ean proiektua bertan behera utzi zuen, aurrekontuetatik horretarako bideratua zegoen diru partida kenduz. Gerora, 2011n diru-laguntza lortu zuten Aterpek eta Beintzako Ostatuak, baina ez euskara sustatzeko proiektua zelako, proiektu turistiko gisa bideratu zutelako bezalaki.

Nafarroako Gobernuak ekimena alde batera utzi zuenean, Arantza eta Beintzako aterpetxeek euren gain hartu zuten Euskaraz Blai udalekuak antolatzeko lana. Arantzako Aterpe hasieratik egon da proiektuarekin inplikaturik eta Beintzakoak azken urteotan egina zuen bat. Batek zein ber-
teak «Nafarroako gizartearen proiektuaren beharra agerikoa» zela pentsatzen zuten: «kontuan hartu hainbat gaztek euskararekin duten harreman bakarra eskolan dela. Udan ez badute euskararekin inongo harre-



Xabier Zugarramurdi (Aterpe), Izaskun Goñi (Bertiz Partzuergo Turistikoko kudeatzailea) eta Mikel Albisu (Beintza) joan den hilabetean Euskaraz Blai udalekuak aurkeztu zituzten egunean.

PROIEKTUAREN BEHARRA

«Nafarroako gizartearen proiektuaren beharra agerikoa zen. Kontuan hartu hainbat gaztek euskararekin duten harreman bakarra eskolan dela. Proiektuarekin segitzea neurri batean militantziako erabakia izan zen»

Xabier ZUGARRAMURDI eta Mikel ALBISU
Arantzako Aterpe eta Beintzako Ostatu aterpetxeak

manik, etorkizuneko zein belaunaldi pres-
tatzen ari gara?». Hortaz, Gobernuaren la-

guntzarik gabe ere, aitzinera egitea eraba-
ki zuten, «neurri handi batean, militantzia-
ko erabakia izan zen», diote Zugarramurdi
eta Albisuk. Bide horretan, Bertiz Partzue-
rgo Turistikoarengana jo zuten laguntza lo-
gistiko eske, eta Partzuergoak laguntza
eskaini zien. Hitzarmen bat egin eta gero-
tik elkarlanean ari dira. «Eskualdeko proi-
ektuak garatzeko tresna egokia da Partzue-
rgo, proiektua ulertu du eta inplikatu egin
da», iritzi diote. Partzuergoari ez ezik, euska-
ra teknikariei, Sortzen elkarteari eta Euskal
Herri mailako euskara taldeei ere eskerrak
eman nahi izan dizkiete, «trena abian jartze-
ko bultzadan lagundu eta inplikatzegaik».



Nire txanda
Joseba URROTZ

Aste Santuko euria

Euria egin du Aste Santuko egun gehienetan, hainbat bazterretan, eta batzuk ez dira konforme izanen. Jende aunitzentzat opor egunak dira, eta ahal dutenak bidaiatzeko aprobetxatzen dute. Pazko astelehenean hainbat turista maletak egiten ari zela eguzkia agertu zen, ez ziren pozik joan izanen...

Pozik egon ez diren bertzeak, hainbat tokitako prozesio zale amorratuak, (Andaluzian batez ere) azken urtetan bezala ezin izan baitituzte pausuak paseatu euriaren erruz. Negarrez ere ikusten ditugu telebistan. Baina, zer nahi dugu ba? Bazko igandean, Jesukristoren berpiztea ospatzeko elizkizunetan sua pizten da, berpiztearen seinale. Eta ondorengo ura bedeinkatu eta eliztarren gainera ixuri bataioaren oroigarri gisa. Aspaldian euriaren beharrea gaude, orduan, ez al da Aste Santuko euria bedeinkapena izan? Tori bedeinkazioa!

«Euriaren beharrea gaude, orduan, ez al da Aste Santuko euria bedeinkapena izan?»


Ezpala

Aitor AROTZENA

Argi ibili hadi!


Argindarraren faktura %7 garestiago ordaindu beharko dugu hemendik aitzinera. Egiatan argindarra sortzea gosta dena ez omen dugu ordaintzen. Beharbada, ez daukat argi;-). Bitartean, argindar enpresen irabaziaz %256 igo omen dira 1997tik 2011ra. Hori esplikatu zutenean ez nintzen klasera joan edo *Barrio Sesamoko* kapitulua galdu nuen. Bitako bat. *Argi ibili hadi, andate con luz!*

Nabarmentzekoak



Xanti UTERGA
Erremontelari onena marboan

Oriamendi enpresako rankingaren arabera martxoko erremontelari onena izan zen Doneztebe aurrelaria. Bortz partidetatik lau irabazi eta 37,6 puntu lortu zituen.



Josetxo URRUTIA
Etxauriko Harrian garaile

136,5 kiloko harri baldarrare 9 jasoaldi eman da, 2007an egindako bere marka berdintzearekin batera, Etxauriko Harria Txapelketa irabazi du leitzarrak apirilaren 1ean.



Aitor BAZTERRIKA
Saritutako mendizaina

Suteen kontra egindako lan bikaina saritzeko urrezko domina eman dio Eprif Basoko Suteen Prebentzioarako Taldeak. Abenduan 12 urte beteko ditu Baztango udal mendizain lanean.

Atzera begira → 1998.09.10 / TTIPI-TTAPA 237. zbk



Oinatz Bengoetxea profesioleatarako bidean

Duela hamar urte erraz nagusitu zen Leitzako Aurrerako Oinatz Bengoetxea Nafarroako afizionatu mailako eskuz banakako txapelketan. Abuztuan Iruñean jokatzekoa zen Munduko txapelketan ere parte hartzekoa zen eta «ongi bidean Munduko txapelketaren ondorengo profesioleataran hasiko naiz» zioen orduan. Bistan da bidea ongi egin zuela eta geroztik ere ibilbide bikaina egin du profesioleataran. Banaka nahiz binaka gustura aritzen zela aitortu zigun, baina «banaka gogorragoa da eta gehixeago gustatzen zait. Bi eskuak nahiko onak eta biziak ditut eta frontoian nahiko aisa ibiltzen naiz» zioen Oinatzek.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leizta16€



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Hatsaren poesiaren hamalagarren misterioa

Ainara MAIA URROZ

Udaberriaren hasieran zorioneko eta eskerroneko naiz, denon maitasuna eta adiskidetasuna dudalako: nire barneko maitasuna, Oihanaren adiskidetasuna, Abbaten adiskidetasuna, Francescaren laguntasuna, Isabelaren *kamaradatasuna*, Pavlinaren *kolegatasuna*, Asierren maitasuna, familia osoaren babesa eta azken batean, pertsona askoren maitasuna, zuen guztion maitasuna. Udaberriaren hasiera honetan zorioneko eta eskerroneko naiz, maitasuna besterik ez dudalako bihotz honetan.

Herri oso bat egon da martxoko azken hondar honetan Baionan euskararen ofizialtasuna eskatzeko alaitasunez, itxaropentsu, elkartasunez, eta zeruaren azpian eki berri bat munduratu da. Arrats beheran ilgora zegoela nabaritu dut barnean eta ene barnean zuria- ren eta beltzaren artean, gris anitzen artetik, kolore anitz daudela ohartu naiz: eraldaketaren morea, itsasoaren urdina, maitasunaren arrosa, grinaren gorria, konfiantzaren laranja, alaitasunaren horia.

Apirilaren lehenbiziko aste hondar honetan, Frantziako arrainaren egunean edo inuxenteon egunean, bihotza malenkoniatsu eta tristura ttantta batekin, baina irribarre xumea ezpainetan, ohartu naiz bizitzaren poesiak garamatzala gu guztiok batera ibai berean maitasunez, eta hatsaren poesiaz blaitu

«Poeta lagunak agurtu ditut bihotzez hurrengora arte, eta banoa poesiaren hatsaz elikatzen segitzera»

naiz Senperen, lagun poetak agurtuz urtero lege, eta haiekin arratsalde atsegina eta poetikoa igaroz. Hamalagarrenez Hatsaren Poesia argitaratu da, poetoi aukera emanez argitaratzeko eta elkartzeko. Ez dakigu zer den poesia, baina poesiak bizi gaitu!

Banoa jada, banoa, jadanik dena idatzi dut, baina jadanik banoa, beharbada hau idatzi ondolik ernegatuko zarete, baina banoa. Zuhaitz eta adar artean etxe bat, leiho bat leun argiturik eta bertan ikusezin xirulari bat zutik hasten da jotzen. Lilidun erreka eta arratsaldeko belardia edaten dituzte usainek eta urek, baltsa urdina dantzatzan, txistulari hura maite nuen, baina soilik amets bat izan zen.

Oroitzapen analogikoetan iltzaturik gelditu dira orratz luzea eta laburra, eta oroitzapen eder horiek eusten didate bizirik, oroitzapen analogiko horrek markatzen dit ordua dudala bukatu zen hari bide berri hau lotzeko, berriro hasteko bizitzen, egonean ez, baina izateko garaia. Pinpilinpauxa-muxuekin maitatu nuen, amets soila izan zen hura.

Eta banoa, jadanik dena idatzi dut. Poeta lagunak agurtu ditut bihotzez hurrengora arte, eta banoa poesiaren hatsaz elikatzen segitzera. Banoa ene maitea bihotzean beti, urrun eta banandurik egonik ere, hurbil eta elkarrekin baikaude.

Poesia doan ematen segitu nahi dut.

Neskak okerragoak dira futbolean Matxismoa edo errealtatea?

Nekane PEREZ

Neskak okerrago aritzen dira futbolean, horrelaxe aditu nuen arbitroa den mutil gazte baten ahotik. Salto egin nuen, “*emaizkidazu datuak*”, pentsatzen bainuen gizonaren garuna kirol honetarako prestatuagoa dagoela erraten duen ikerketa pseudozientifiko horietakoren bat aipatuko zuela. Segidan justifikazioa: *Hau ez da matxismoa, errealtatea da. Errealtatea? –galdegin nion– zein ikerketan ageri dira datu horiek? Nork eskuratu ditu? Zein urtetan? Erantzuna, berriz, Datuak? Denok ikusten dugu, denok erraten dugu, zer datu gehiago behar dira? (...)* Egia da gizonek emaitza akademiko kaxkarragoak lortzen dituztela, datu hori ikerketen bidez eskuratu delako eta ez pertsona guttik edo aunitzek erraten dugulako. Egia da gizonez emakumeek baino leku gehiago dutela kirol orrialdetan, baita klubek ez dutela berdin jokatzeko emakume eta gizonekin. Athleticek gabarrarekin nola jokatzeko duen ikustea bertzerik ez dago. Zenbat aldiz erakutsi behar dute neskek txapel- dunak direla?

Egia tristea da emakumeek ez dutela gizonezkoen soldata berdina jasotzen kirolean, ez dituztela aukera berdinak. Egitan, okerrago aritzen dira? Ez dakit, zalantzak ditut, baina ez zait inporta. Ez zitzaidan inoiz gogoratuko erratea hezkuntzara sarbiderik izan ez duen Beningo mutiko bat, adibidez, ez dela Nafarroako neska bat bezain trebea ordenagailua erabiltzen. Ez dira nahasi behar pertsonen trebetasunak eta hauek garatzeko izan dituzten aukerak. (...)

Berdintasunaren bidetik segitu behar dugu, baina norabide egokian, batzuetan atzeraka goazen garai batean sentitzen bainaiz. Batzutan, lortutako eskubideek ez dutela atzera bueltarik pentsatzen dugu, eurien ondolik ateratzen den eguzkia bezala. Ez dugu hain inozoak izan behar, aurrerapenak emakume aunitzen borrokari esker lortu baitira, ez dira berez etorri. Zerbait gaizki egiten ari garela erran zidan lagun batek. Gauzak ez dira aldatzen, ez bederen guk nahi edo behar haina. Berdintasuna ez da eskaera kapritxoso bat, emakumei ongi datorkigun zerbait, berdintasuna premia bat da, emakume zein gizonentzakoentzat. Kontua ez da nik irabazi-zuk galdu, nik irabazi-zuk irabazi baizik, denok irabazten baitugu berdintasunean.

Emakumezkoak okerrago aritzen direla futbolean? Bai, noski! eta familia hobe zaintzen dute. Konponketa erraza proposatzen dut, hobekiago aritzeko denbora gehiago eskaini dezaiozun kirolari, gizonek zaintzari eskaintzen dioten bitartean.

«Konponketa erraza proposatzen dut, emakumeok hobekiago aritzeko denbora gehiago eskaini dezaiozun kirolari, gizonek zaintzari eskaintzen dioten bitartean»

Irakurleak mintzo

MARRICHIWEU!
(Maputxe hizkuntzan
“hamar aldiz
irabaziko zaituztegu”)

Berako Kaxerna Gaztetxea

Berako Kaxerna Gaztetxeari mugitzea, ezagutzea eta konpartitzea gustatzen zaio. Horregatik munduko erresistentziak ardatz gisa hartuz errealitate ezberdinak lantzeko astebeteko zikloak antolatzen hasi ginen orain dela urte pasatxo. Sahara, Palestina, emakumeon borroka edota Maputxe herria gehiago ezagutzeko eta elkartasuna adierazteko asmoz hitzaldiak, antzerkiak, dokumentalak, bazkariak, eztabaidak eta zikloi bukaera emateko muralak egin ditugu. Azken hauek betiere mo-

mentuko udaletxearen baimen sinatua eskutan genuela margotuak. Zailaingo zubian 2011ko otsailean egindako muralak bi eraso izan ditu (gauzez eta gordekerian eginak biak): Lehenengoan agertzen diren haur eta zahar Maputxeari bigoteak margotu zizkieten spray grizez. Handik gutxira murala erabat zikindu zuten bi pertsonaien eta gaztetxeko sinaduraren gainean spray beltz potea hustuz. Ekin-tza hau egin dutenek beraien burua argi definitu dute: adierazpen askatasunaren, duintasunaren eta gaztetxearen kontrakoa erabat. Horregatik Kaxernatik erraten dugu murala berriz margotu dugula eta ziklo berririk egingo ditugula! Koloriak soberan dauzkagula eta hamar aldiz irabaziko diegula!

**Bota bertsoa****Sarako bertso eskolako haurrak**

Julene ETXEBERRI PACHECO
(11 urte) Airea: Antton eta Maria

Larrun

Nere etxetik hori ez da oso urrun goizez bere kaskoan bada aunitz lurrin bera upatzeko behar da aski osasun gure altxorra baita bera zain dezagun. Asmatu al duzue? Izena du Larrun.

Ibai ARBURUA PRADERE (11 urte)
Airea: Txoriak eta txoriburuak

Sara herria

Jende guziek erraten dute: “oso ederra da Sara” eta turistek erraten dute hamar mila aldiz: “ça va”. Gaur edo bihar gure herrira zu ere etortzen bazara eskua eman eta ganen ga Larruna edo bestara.

Ibai ARBURUA PRADERE (11 urte)
Airea: Txoriak eta txoriburuak

Udaberria Euskal Herrian

Oraintxet hasia da gure udaberria eta horretarako behar da irria Mundu guzia zinez da ikusgarria baina itsusiagoa ez da Euskal Herria.



Sara OLAZIREGI BERRUET
(11 urte) Airea: Antton eta Maria

Udaberria

Orain berriz hasia da sasoin berria xoriek badaukate kalaka larria. Alaitu zaigu kolpez Sarako herria lorez beteta dago gure baserria, alai-alai etorri da udaberria.

Olaia ERRANDONEA BERGARA
(10 urte) Airea: Antton eta Maria

Olhain ikastola

Olhain ikastola da ederra etxola, den-dena loreekin den-dena arbola. Ta auzoan badugu publiko eskola. Nik biziki maite dut gure ikastola: euskaraz mintzo ga ta segitu nahi hola.

ttipi-ttapa

idatzkariak ebera bidaltzea nahi baduzu, datu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net

- Inge-Euskal Herria 30€
- Europa 50€
- Britainia, Lituania eta Estatuak 25€
- Amerika eta Australia 20€
- Ipar Euskal Herria 50€
- Lituia 10€

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNA

Emakumeen irudia

Edurne ELIZAGOIEN ARIZTEGI

Femenino singularrean saiatu-ko naiz gaurkoan, Uxue Alberdik joan den hilaren 12an bertsoaritza eta emakumearen inguruan egindako hitzaldian aipatu bezala. Oraindik asmatzeko prozesuan den aditz horretan aritzea ez dela errega kontuan hartuz eta behar izanez gero plurala ere erabiltzeko gai ikusten bait naiz, gaur udaberriak indarrez bete duen San Jose lorea bezala sentitzen bait naiz.

Femenino pluralean hasteko bidean erdian dugun argazki horri so egitea bertzerik ez dago. Begiratu eta ikusi mesedez. Hortxe gaude Mendaur kaxkoan 40 emakumetik gora, joan den martxoaren 11n egindako emakume irtenaldian. Eguraldi zoragarria, mendi eta bista ikaragarri politak eta giro ezin hobea. Erran dezakegu Mendaur kaskoa ere loratu zitzaigula egun horretan, hainbortze lore eder ikusirik; larrosak, kalak, geranioak, kaktu-



sak... denetik zegoen han eta denak ikaragarri ederrak. Errepikatzeko moduko esperientzia izan zen eta hurrengo urtean bazkaltzen ere geldituko gara dudarik gabe. Ba bertzerik gabe, emakume

talde honen irudiaz disfrutatu ezazue emakume eta gizonen, irudian agertzen diren emakumeen bikote eta familia izateko zortea baduzue are gehiago. Etxe hoietan urte osoan loratutako loreak baitaude. Eta

Mendaurrera joateko aukerarik izan ez zuten hoientzat aipatu hurrengo urtean Etxalar aldean eginen dugula mendi itzulia eta han espero zaituztegu... Aupa Bortziriak eta bailara osoko emakumeak!

Bortziriako Gizarte Zerbitzuak • ssb@lesaka.net • Tel: 948 635036

LESAKA-GOZTEGIA
948 630 786
Aitzale, 18 • BERA

ERANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - alea 21-22 • 31780 BERA

F. LANCHAS
Akabdiatorra eta herriatzailea
Parkes eta parket fluzatzailea
Jartza
Mota gutxiertako solai
Tel: 948 630 755 M: 607 406 781

948 631 218
Kantillonberr 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

José I. González Enguita
Bortziriako
tel. 666 233 466

LARRALDEK
eta
LINDOURRENBORDK
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Tolosa auzoa - LEKAROZ | 948 452123 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

GIZARTEA

ESKUALDEA → MARTXOAREN 29KO GREBA

Grebak eskualdea geldiarazi du

TIPI-TTAPA

Lan erreformaren aurka martxoaren 29an deitutako greba ia erabatekoa izan zen eskualdean eta lan arlo guztiak geldiarazi zituen. Herriko Etxeetako udal bulego gehienak itxiak egon ziren, nahiz arlo publikoan derrigorezkoak diren guttieneko zerbitzuak eskaini.

INDUSTRIA-KOMERTZIOAK

Bortzirietan kasik erabatekoa izan zen greba. Alco, Zalain, Funvera, Saveria, Martiko eta Hidrorubber Iberica itxita egon ziren, Composites Gurean sekzio buruak izan ezik produkzio geldirik eta itxita. Arcelorren, «nagusu baten bisita dela eta mehatxuen bidez linea bat martxan jarri zuten txanda baterako 10 langileekin, baina gero erretena bertzerik ez zen gelditu», adierazi zute LAB-etik, baina Legasa eta Lesakako planten artean langileen %98ak greba egin zuen. Lantegien artean salbuespen bakarra Berako Palmadera izan zen, ELAren arabera.

Donezteben bi industrialdeak, Mendi Txuri lantegia barne, itxi zituzten. Aparan geldirik egon zen, baita Emauseko Trapuketariak ere eta Baztan-Bidasoa anbulantziak guttieneko zerbitzuak eskaini zituen. Doneztebe-ko komertzioak ere ia erabat itxia zituzten eta gairontzeko herrietan dena guztiak itxi zituzten.

Baztanen Marmoles del Baztan eta Harri Lan geldirik egon ziren, eta La

Baztanesa autobusak guttieneko zerbitzuekin. Elizondoko dendak ere ia erabat itxiak egon ziren.

Leitzan ere itxita egon ziren Sarriopapel eta ia komertzio guztiak ere bai.

IRAKASKUNTZA

Irakaskuntzan ere grebaren segida ia erabatekoa izan zen. Baztango herrietako eskoletan, irakasle guztiak greba egin zuten. Elizondoko eskolan irakasleen %93k greba egin zuen. Lanbide eskolan guttieneko zerbitzuak eskaini zituzten eta Lekarozen irakasleen %82ak eta ikasleek %99ak greba egin zuten.

Donezteben 36tik 30ek greba egin zuten. Bortzirietako ikastetxe publikoetan grebaren segida erabatekoa izan zen, guttieneko zerbitzuekin. Gauza bera gertatu zen ikastoletan ere. Berako Jesusen Bihotza eskolan lau irakaslek greba egin zuten, eta gainerakoan klaseak eman zituzten.

Leitza eta Goizuetako ikastetxeetan erabatekoa izan zen grebaren segida.

MOBILIZAZIOAK

Heriz herriko kontzentrazioez gain, manifestazioak egin ziren. 400 bat lagunek parte zuten eguerdian Beran egindako manifestazioan. Elizondokoan 500 bat lagun elkartu ziren eguerdian. Bietan *Bertze eredu sozial bat posible da* leloa zera man pankartarekin ibili ziren. Arratsaldean, LAB, ELA eta EHNEK deitutako eskualdeko manifesta-



Beran egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: A. AROTZENA



Elizondon egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: ONDIKOL



Leitzan egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: ENKO ASTIBIA



Donezteben egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

zioa egin zen Donezteben. 400 bat lagun bildu ziren, *Erreforma eta inposaketarik ez, Euskal lan-*

gileok greba orokorra zioen pankartaren gibelean. Leitzan, arratsaldeko manifestazioan 400 bat bil-

du ziren, *inposaketan gurean burujabetza, euskal Herriak erreformari ez!* zioen pankartarekin.

GAZTEAK → JALGI HADI GARAIPENERA

2.000 lagun bildu ditu Sara eta Lesaka lotu dituen Gazte Martxak

Eskozia, Irlanda eta Herrialde Katalanetako gazteek ere parte hartu dute

TTIPI-TTAPA

Jalgi Hadi Garaipenera gazte mugimenduen antolatutako Gazte Martxarekin 2.000 gazte bat egin zuten. Euriak ere ez zituen zapuztu apirilaren 6tik 8ra Nafarroako Konkistaren 500. urteurrena gogoan antolatutako ekitaldiak.

Saran abiatu zen Gazte Martxa, apirilaren 6an, eta bildutakoek ongi pasatu bide nabar, sormenerako eta ezagutzarako aukera ere izan zuten. Biharamunean oinez Lesakarako bidea hartu zuten, tartean Beran bazkalduta. Arratsaldean ailegatu ziren Lesaka. Hemen ere ez zen animaziorik falta izan, eta ekitaldian euskara, lurraldetasuna, feminismoa eta gazte borroka izan ziren ardatz nagusiak. Aipatzekoa da, Irlanda, Eskozia eta Herrialde Katalanetako gazte or-



ARGAZKIAK: TOPATU.INFO

Hainbat eta hainbat gazteek parte hartu zuten Saratik Lesakara egindako martxan.

dezkariek ere parte hartu zutela. Gauean kontzertuak eta giro ederra

izan ziren eta apirilaren 8an Independentistak Sareak deituta Iruñean

egin zen Aberri Eguna joanez eman zuten bukatutzat martxa.

BORTZIRIAK

PRESOAK → HERRIRA MUGIMENDUAREN ESKUTIK

Preso eta iheslariak etxeratzeko eskatuz mendi martxa egingen da igandean Frainera

TTIPI-TTAPA

Euskal Preso eta iheslarien etxeratzeari ahalbideratu nahi duen Herrira herri mugimenduen antolatutako mendi martxa antolatu du igande honetarako, apirilak 22. Bortziritako herri guztietatik abiatuko da mendi martxa, bakoitza bere aldarrikapenarekin, eta Frainen bilduko dira guztiak. Arantzako plazatik 09:30ean aterako dira, *Isolamendurik ez!* lelopean. Berako lamoteneatik 09:00etan abia-

tuko dira *Gaixo larriak aske* eskatuz. Etxalarako frontoitik 09:30ean aterako dira *Preso eta iheslariak etxera* aldarrikatuz. Igantziko frontoitik 10:30ean aterako



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Helburu berarekin joan den urtean Frainera egin zen mendi martxako irudia.

dira *Sakabanaketarik ez!* lelopean eta Lesakako plazan 10:00etan egin da hitzordua, *Iñaki askatu!* eskatuz. Herritarren parte hartze zuzenarekin Bor-

tziritako herrietan aurkezpen berriak eta ekimenak iragarri ditu Herrira mugimenduak eta horietako bat da igande honetan egingen den mendi martxa.

tziritako herrietan aurkezpen berriak eta ekimenak iragarri ditu Herrira mugimenduak eta horietako bat da igande honetan egingen den mendi martxa.

KULTURA

BERTSOLARITZA → TALDEKAKO TXAPELKETA

Lesakako Rimak Exkaxko taldeak irabazi du Bardoak 2012 txapelketa

Giro ederra izan da Leitzan egin den final handian

TTIPI-TTAPA

Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketak martxoaren 31n Leitzan jokatu zen finalarekin borobildu zuen bi hilabetetako ekimena. 500 bertsozale elkartu ziren Leitzako pilotalekuan hiru talde finalistetan lanaz gozatzeko eta hasiera hasieratik giro ezin hobe nagusitu zen.

Taula gainean ziren hiru taldeek, Lesakako Rimak Exkaxkok, Etxarri Aranazko Bilixkorrikok eta Oronoz/Malerrekako Erauntsik lan bikaina osatu zuten. Rimak Exkaxko taldeak irabazi zuen arren, parte hartzaile eta bertsozale guztien festa handia izan zen. Taula gainean bertsoan, bed-

ratzi bertsolari; Rimak Exkaxko taldetik Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Eneko Fernandez. Bilixkorrikok taldetik Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Alain Iriarte eta Erauntsi taldetik, Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta Amaia Elizagoien. Bertsolari beteranoak batzuk, hasi berriak edo aspaldian bertsoan jardun ez direnak bertze batzuk.

Taldeka egindako hasierako agurrek umorea izan zuten ardatz, dantza, antzerki, mozerro eta kantu ezagunen bertsoekin. Bertsolariak ez ezik, taldekide guztiek parte hartu zuten agurrean eta publikoak gogotik gozatu zuen. Ondotik egindako lanak ere txukun eta maila onean osatu zituzten bederatzita bertsolariak.

LASARTE GOGOAN

Saioa bukatzeko, berri, duela gutti zendu-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Rimak Exkaxko talde irabazlea.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Hiru talde finalistetako ordezkari guztiak.

tako Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari omenaldia egin zitzaion. Leitzako bertso eskolako gaztetxoek eta Miguel Mari Elozegi Leitzako bertsolariak bertso bana kantatu zituzten eta ondotik, Jaione Olazabal Aresoko abesla-

riak Lasartek idatzitako pare bat bertso sorta kantatu zituen, bertsozaleen gozamenerako.

Jai giro ederrean eman zitzaion bukaera finalari, talde finalistetan parte hartzaile guztiak taula gainera igo zirenean eta bederatzita bertso-

lariek bukaerako agurrak kantatu zituztenean.

Saioaren ondotik, bildutako bertsozaleekin triki poteoa egin zen Leitzan barrena eta eskoletako jantokian antolatu zen herri afariak eman zion amaiera Bardoak 2012 ekimenari.

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Trib/Fax: 948 830 018
Kaaitonbarri 12 • BERA

BIDASOA
BIDAZKIA - FERREJONE
ESTRUKTURA - ADRAKTIBARI
BIBOTEGI - BARRIOZ
T.F. 859 971 442
BERA

HELBIDE BERRIA
AGRICOLA BIDASOA
Nekazaritza eta lorezaintzako
makineriaren salmenta eta konponketa.

STIHL VIKING Grillo

Auzolan, 16 - Alto Arretxe - 1. lokala • 20303 IRUN
T.F. 943 62 73 31 • agribidasoa@gmail.com

Karsuk
Muebles de cocina
Mobilier de cuisine
Sukaldeko altzarriak

K
Carlos Pontibar Saenz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 025 430
M +34 699 894 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

LESAKA

OSASUNA → HERRIAN ETA BERAN MAHAI-INGURUAK

Haurtzaroko ezintasunaren inguruko jardunaldiak eginen dira

Osasun Etxeak eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako hilaren 23 eta 25ean

Aitor AROTZENA

Bortzirietako haurtzaroko ezintasunaren inguruko jardunaldiak ospatuko dira apirilaren 23an eta 25ean, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Bortzirierako Osasun Etxeak antolatuta.

Apirilaren 23an, as-telehenarekin, udalaren erabilera anitzeko aretoan, Osasun Zentroaren parean, 17:30etik 19:30era instituzioen mahai-ingurua eginen da. Osasun arloko hizla-

ria Belen Compains Osasun Zentroko pediatra izanen da; hezkuntza arloko hizlaria Rosa Mutuberria, hezkuntza orientatzailea Rikardo Baroja eta Irain Ikastetxe publikoetan; gizarte politikako hizlaria, berriz, Cristina Arregui, Nafarroako Arreta Goiztiarreko Zentroko zuzendaria izanen da.

Apirilaren 25ean Berako Beralandetan elkarteen mahai ingurua eginen da 17:30etik 19:30era. ANFASeko hizlaria Elena Ganuza, Arreta Goiztiarreko programako arduraduna izanen da; ASPACEko hizlaria Isabel Pardo (Uxaneko arduraduna); ONCEko hizlaria Esperanza Calderón irakaslea eta Eunateko hizlaria Nerea Archanco logopeda eta familien arreta programako arduraduna.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ehun dantzari baino gehiago bildu zituen Tantirudantzak

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatu zen apirilaren 1ean. Tantirumairu taldeko dantzariekin batera, Etxalarko Altxatakak eta Gipuzkoatik, Getariako Gure Txeru eta Astigarragako Astigar taldekoak aritu ziren, ehun dantzari baino gehiago guztira. Goizean, kanpotik etorritako talde bakoitzak ibilbide bat egin zuen karrikaz karrika. Eguerdian, herriko dantzariak Zubigainekoa dantzatu zuten Onin errekaaren petrietan eta gero talde guztiek emanaldia eskaini zuten plazan. Bazkalondoan, pailazoaren saioarekin borobildu zen aurtengo Tantirudantza. Bertze aldetik, Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak '3:15 zail da konprenitzen' dantza emanaldia eskainiko du apirilaren 21ean, larunbat arratsaldeko 20:30ean.



ARGAZKIA: LEGARRA

European ailegatu eta european joan zen Gazte Martxa

Aste Santuko larunbatean kasik bikoiztu egin zen herriko populazioa, Jalgi Hadi Garaipenera ekimenak antolatutako Gazte Martxa Saratik abiatu eta Beratik pasatuta, Nabazen barna ailegatu zenean. Ez zuten eguraldiaren laguntzaririk izan, baina beraien kanpindendak hartu eta Landazelaietan horretarako presatua zuten kanpalekuan paratu zituzten, gauean Zambrako aparkalekuan jarritako karpan gazte ekitaldiaz eta Gaubela, Skatu, Governors, Willis Drummond eta Anai Arrebak taldeek eskainitako kontzertuaz gozatzeko. Igande goizean ere Goienetxe triki eta Sound System taldeen musika doinuekin ernatu ziren gazteak eta herria garbitu eta aski txukun utzi ondotik autobusean joan ziren gehienak Iruñera, Aberri Eguneako manifestazioan parte hartzera.

KATTU Tiserna - Jotetza
Asteburuetan:
Menuak | Plater Konbinatuak
Ogitartekoak | Hanburgeak
Sandwich-ak
948 627 573 - 618 735 539 - LESAKA

Lehen
Mankomunitateak
Jardunaldiak
Prestazioak
KATTU
Hilabete guztiak 30.3070 Lehera
T. 948 627 573

BOZZA-ALDA
BOZZA-ALDA
BOZZA-ALDA

ASTE SANTUA → TURISMOA

87 lagun pasatu dira turismo bulegotik Aste Santuan

Lehengo urteetan baino jende guttiago ibili da

Irune eta Itsaso

Bertze urte batez Udalak turismo bulegoa ireki du Kultur Etxean, Bertiz Partzuergoaren laguntzarekin eta aurtten, 87 lagun pasatu dira bertatik. Apirilaren 3an egindako langile aukeraketa elkarrizketen ondotik, Irantzu Pastor lesakarra egon da bulegoan informazioa ematen eta udan ere bera egonen da.

Aitzineko urtean baino aunitzez ere jende guttiago ibili da. Gehienbat, hala ere, ortzegun eta larunbatean izan zen. Hurbildutakoen artean, gehiengo Bizkai, Zaragoza, Nafarroa eta Arabakoak ziren, baina Madril, Alikante, Bartzelona, Burgos, Gipuzkoa eta Valentziako turistak

ere etorri ziren. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina herriko alojamendu guztiak bete ziren.

Kooperatibako urteko batzarra

Larunbat honetan, apirilak 21, Usoa Kooperatibako batzar orokorra egingen da Kultur Etxean. Lehenbiziko deialdia 19:30ean izanen da eta bigarrena 20:00etan. Batzarrean urteko kontuen mugimenduak eman eta junta berrituko da. Ondotik hiru gauzen zozketa egingen da. 22:00ak aldean afaria izanen da La Basquen. Afarirako apuntatzeko azken eguna apirilaren 18a da.

Altxatoko batzarra

Apirilaren 29an Altxatoko urteko batzar orokorra egingen da 12:30ean, Kultur Etxean. Gonbitea luzatua gelditzen da parte hartu eta ideiak ematera joateko.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKLA

Zuhaitzaren eguna

Martxoaren 23an Landagain eskolako 68 ikasle eta 11 irakasleak zuhaitzak landatzera joan ziren. Joan den urteko lekuaren ondora joan ziren aurtten ere; hau da, Olako bordatik pixka bat gorago. Goizeko 9etan atera ziren eskolatik (ttikienak kotxean joan ziren eta gainerakoak oinez). Aipatu beharrekoa da gurasoen laguntza kotxeetan goiti joateko eta bai zuhaitzak landatzerako orduan ere, baita Jose Angel eta Patxikurena ere, zuhaitzak (haritzak, elorri xuriak...) eramaten eta landatzerako orduan. Lana akautu ondotik, Guraso Elkarteak eskainitako luntxa izan zuten. Bakoitzak eramandako bazkaria jan ondotik berriz herrira itzuli ziren.



ARGAZKIAK: AXUN MAIA

Dantzari Ttiki Eguna

Apirilaren 1ean Dantzari Ttiki Eguna ospatu zen Lesakan. Astigarraga, Getaria, Lesaka eta Etxalarko dantzariak izan ziren parte hartu zutenak. Etxalartik 3-13 urte bitarteko 27 dantzari joan ziren eta denak ere hagitz kontent bueltatu ziren.

-TELLETXEA-
Lorazaintza

Patxikurena • Irantzu Pastor • Irantzu Pastor • Irantzu Pastor

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
Ouzango Inkl. 18 • LESAKA • T. 619 418 683 F. 948 657 049
j.telletxea@bostmail.com
www.telletxea.com

carnha
guztiak sartzen

Orain eragorri zitegun! 498400009
14.021 barnekoak www.carnha.net

BAR BOTXO OSTALUA

Zelai • GETARIA • 948 630 002

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → PELLE TTIKIK ANTOLATUTA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izanen da larunbatean Beran

Mila sarrera paratu dira salgai

Nerea ALTZURI

Ez da erraza Euskal Herriko pailazorik ospetsuenekin ikuskizun bat antolatzea. Han eta hemen ibiltzen dira Pirritx, Porrotx eta Marimots eta data bat libre aurkitzeko zaila izaten da. Baina Pelle Ttiki Haur Eskolako hezitzaile eta gurasoak joan den urte bukaeratik harremanetan jarri ziren pailazoenekin. Azkenean, apirilaren 21ean, hutsune bat zutela egutegian eta data horixe aukeratu eta lanean burubelarrari hasi ziren ikuskizuna antolatzen. Herrian gisa honetako emanaldietarako azpiegitura egokirik ez dagoelako, Lesaka eta Berako udaletxeetako ateak jo zituzten eta Pelle Ttikikoen hitzetan, harrera arront ona izan zuten bietan. Baina bat aukeratu behar eta Beran egitea erabaki zuten.

Larunbatean Eztegarra pilotalekuan izanen da ikuskizuna, 18:00etatik aitzinera. Mila sarrera salgai paratu dira 7 eurotan: Pabloenean, Beran (Errekalde), Lesakan (Atxaspi), Donezteben (Titi), Elizondon (Fantxike), Igantzin (La Villa), Etxalarren (Herriko), Sunbillan (kanpinean), Urdazubin (farmazia) eta Irunen (AEK). Honez gero, ttikituak izanen dira sarrera horiek.

Pelle Ttikik dituen gastuak arintzeko ekitaldi garrantzitsua izanen da. Momentuz, aurreikuspenen arabera, sekulako erantzuna izanen du.

Kantu bazkaria

Maiatzaren 12an kantu bazkaria antolatu du Burlada jatetxeak. Aspaldiko urteetan kantu zaharren bilketan dabilen Angel Mariezkurrena bere taldearekin bertan izanen da eta Frantzisko musikariak ere arratsaldea alaituko du. Sekulako harrera izaten du Dantxarinean Mariezkurrenak antolatzen duen egunak eta orain Burlada jatetxeak lekuko hartu du. Maiatzaren 10a baino lehen eman behar da izena Burladan edo 948 634027ra deituz.

Mus txapelketa

Xaloea, Xorroxin eta TTIPI-TTAPAREN aldeko mus txapelketan, 12 bikotek parte hartu zuten eta Petrisenekobordako Antonio Maiz eta Lurdes Goñik irabazi zuten. Eurentzat izan ziren bildotsa eta botil ardoak. Fermin Etxeberria eta Jesus Mitxelena izan ziren azpitxapeldun eta hauek botil ardoak eraman zituzten. Eskerrik asko bai parte hartzaileei eta bai Ekaitza Elkarteari ere.

Kooperatibako berri

Bortzak Bat kooperatibak urteak daramatza bazkideei zerbitzu egokiago bat eskaintzeko la-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Grebarekin bat egin dute herritarrek

Martxoaren 29ko greba deialdiarekin bat egin zuten herritarrek, eta inguruko herrietan deituak zeuden manifestazioetara joan aitzinetik, plazan kontzentrazioa egin zuten, bertze eredu sozial bat posible da aldarrikatuz.



ARGAZKIA: IRATXE MADARIAGA

Gazteak sagardotegian

Gazte kuadrilla ederra elkartu zen martxoaren 31n Hernanira sagardotegira joateko. Gazte Asanbladak antolatutako ateraldiak erantzun bikaina izan du aurten ere.

nean. Gaur egun, 128 bazkide ditu eta pentsu, abonu eta erremintez gain, egunerokoan etxean behar diren produktuak saltzen ditu. Traktore eta berogailuentzat B gasolio zerbitzua ere eskaintzen du, AN kooperati-

baren bidez ohi baino merkeago. Orain, berriz, ANk Alkaian paratu duen surtidorean Agasolioa hartzeko eskaintza egin die bazkide eta hauen familiei, litroko 0,08 euroko deskontua iragarri. Horiek dira, bertzeak

bertze, bazkideen esku dauden zerbitzuak.

Eta norbaitek kooperatibako bazkide egin nahi badu, Nafarroako Kuttan 60 euroko ordainketa egin eta agiri horrekin kooperatibara joan behar du datuak ematera.



AZPIEGITURA → ERREPIDEA

Bidegurutzetik harrobira doan errepidea zabaltzen hasi dira

Lanen kostua harrobiak berak ordainduko du osotasunean

Joxean ORTEGA

Kruzerotik edo bidegurutzetik harrobira doan errepide zatian, bidea zabaltzeko lanak hasi dituzte. Lan hauek harrobia haunditzeko proiektuaren ondorioetako bat dira. Honen arabera, harrobiko enpresak bere gain hartu ditu errepidea zabaltzeko lanak: hau da, berak ordainduko du obraren gastu osoan. Harrobia haunditzearen akordioa 2003/2007 agintaldian hartu zuen Udalak. Lanek urte bateko epea izanen dute.

OBRA GEHIAGO

Lesakarako bidean, zuhaitz batzuk bota ondotik, bazter bat arrisku-tsu samar gelditu zen eta horri erantzunez, Udalak bionda bat paratu du.

Kantu zaharren bazkaria

Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako Kantu Zaharren Bazkariak arrakasta handia izan zuen: 67 lagunek eman zuten izena eta Baratzondon eta herri osoan euren ahots alaiak somatu ziren. Besta ederra izan zen eta ilunabarerra luzatu zen.

Kinto bestak

Kultura Batzordeak antolatu nahi zuen Kinto Besta ez da aitzinera atera, deitutako bilertara jenderik agertu ez delako.

Halere, aipatu, 1971-1972 urteetan jaiotakoek euren kinto besta antolatu dutela maiatzaren 5erako. Bazkaria 14:00etan izanen da La Villa jatetxean. Joan nahi duenak jatetxe horretan eman behar du izena eta 20 euroko sarre-rra ordaindu, maiatzaren 2a baino lehen.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ortzegunean hartuko du Udalak ofizialki UEMAn sartzeko erabakia

Martxoaren 31n, Udaberriko Besten barrunean, *Igantzi UEMAn sartuko da. Zer da UEMA?* aurkezpena egin zen. Elizatean egindako aurkezpen honetara 40 bat lagun bildu ziren. Alkatearen hitzak aditu ondotik, bertaratutakoek *Pagolizarra eta euskara* bideoa ikusteko aukera izan zuten. Bideo horretan herriko eskolako haurrek modu hagitx argian azaltzen dute UEMA zer den, zergatik den beharrezkoa euskararen aldeko neurriak hartzea, eta hori guztia San Joan Xarreko erreserba naturalarekin alderatuz. Herritarren aitzinean aurkezpen hori egin ondotik, ortzegun honetako, apirilak 19, osoko bilkuran Udalak ofizialki hartuko du UEMAn sartzeko erabakia. Erabaki horrek jendearen aitzinean egon beharko du 30 egunez, eta epe hori pasatu ondotik, UEMako batzar nagusiak onartu beharko du, eta batzar hori Goizuetan izanen da, ekainaren 9an.

Mendi irteera baina eta guzti

Biltoki Elkartek mendi irteera antolatu du maiatzaren 12rako: Igantzitik abiatu eta Elgorriagara joanen dira. Behin harat ailegata, han bazkaldu eta bainuetxean bainua hartzeko aukera ere izanen da.

Izena emateko epea apirilaren 30ean bukatuko da.

Eskolan baratzea

Baratzea paratu dute martxan eskolan. Aurtentzuz eta tipulak landatu eta azenarioak erein dituzte. Lurra aitzurtu, ongarritu eta ikasle bakoitzak bere plan- ta landatu eta haziak erein ditu. Ea iaz bezain uzta oparoa izaten den!

Mus txapelketa

Bederatzi bikote aurkeztu ziren Xaloe, Xo-

roxin eta TTIPI-TTAPAREN alde martxoaren 30ean Biltoki Elkartean egin zen mus txapelketa. Horien artean, Jose Luis eta Txomin Sirena aita- semeak izan ziren nagusi eta txanpainak eta haragia hartu zituzten sari gisa. Xeberino eta Ramontxo Reategi azpitxapeladun izan ziren eta hauek ardoa eta haragia jaso zituzten.

Eskerrik asko parte hartzaileei eta Biltokiri.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

XATURETXEA
JATETXEA

Tel: 948 637 260 - LESAKA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

BORTZIRI
UNSIÓ ANAIK
Sukalderako altzarrik

Berron erria • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 907 226 881 • Fax: 948 637 511

SUNBILLA

KULTURA → IKASTAROA

5-11 urtekoendako euskal kanten tailerra antolatu dute

Apirilaren 25a baino lehen eman behar da izena

Maider PETRIRENA

Modu jostagarri eta atseginean, euskal kantak erakusteko eta musika tresnen munduan murgiltzeko asmoz, 5-11 urteko haurrendako euskal kanten tailerra antolatu dute Joana eta Miren Hernandorenak eta Goreti Anzizarrek.

Apirilaren 27tik aitzinera, hamabortzean behin, ortziraletan 17:00etatik 18:30era eskainiko da. Lehenbiziko bi saioak proba modukoak izanen dira eta hirugarren saioarekin segitzekotan, haurrek 20-30 euro ordaindu beharko dituzte. Berez, tailerrak dohainik dira baina erabiliko den materiala eta antolatuko diren ekitaldiak ordaintzeko izanena da dirua.

Apirilaren 25a baino lehen apuntatu behar da, 678 537607ra deituta.

Kinto bestak

Apirilaren 7an 1950-1951 urteetan jaiotakoek kinto besta ospatu zuten Ariztigan kanpinean. Apirilaren 14an 1962-1963an

jaiotakoek txanda izan zen baina hauek Iturengo Altxunea Erretegian egin zuten. Pixkanaka ari dira kinto bestak ospatzen.

Aste Santua

Eguraldi txarra zela eta, Ortziral Santuan egin ohi den prozesioa ezin izan zen egin. Santuak muntatu zituzten baina prozesiorik ez zen egin.

Ulibeltzak Elkarteko juntako karguak

Ulibeltzak Elkarteko junta berriak karguak banatu ditu. Jesus M^a Jorajuria lehendakaria da, Jose Miguel Zelaieta lehendakariordea, Josune Agirre idazkaria, Bixente Ibarra diruzaina eta lau bokalak Juan Tomas Lataza, Xanti Arretxea, Juan Jesus Gaztelumendi eta Juan Miguel Urroz.

Judoa

Martxoaren 24an Nafarroako alebin mailako lehenbiziko fasea izan zuten Errekako judoek eta parte hartu zuen herritarrek txapela ekarri zuten. Zorionak Haritz Bereau Mutuberriari. Eta apirilaren 1ean bertze kategoriatan batekoen txanda izan zen eta bertze herritar bat aritu zen: Koldo Herrera Urroz. Segi horrela!



ARGAZKIA: D.NOTICIAS

Iker bikain pilotan

Pilotari haundia dugu herrian: Iker Espelosin. Egun berean bi txapel irabazi ditu berriki. Zizur Nagusiko lau t'erdikoa eta Nafarroako txapelketa. Zizurko txapelketara partidarik galdu gabe ailegatu zen martxoaren 24an jokatu zen finalera eta txapela irabazi zuen partida bikain bat egin ondotik. Nafarroako binakako txapelketan ligaxkan zortzi partida jokatu ondotik, Burlatan egin zen finalera ailegatu zen Antsoekin batera, baita irabazi ere. Zorionak!



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Asteburu Kultural konpletua

Ekitaldi franko izan ziren Asteburu Kulturean ikusteko eta gozatzeko eta horietako batzuk aipatuko ditugu. Ortziral arratsean, Xalao, Xorroxin eta TTIPI-TTAPAREN aldeko **mus txapelketa** egin zen Ulibeltzak Elkartean eta 15 bikotek eman zuten izena. Niebes eta M^a Angeles izan ziren txapelidunak; Jose Migel eta Jose Luis txapelidunordeak; hirugarrenak Jorge eta Angel izan ziren eta laugarrenak Maria eta Agurtxane. Biharamun goizean **patata tortilla lehiaketa** izan zen eta bortz taldek parte hartu zuten. Gaztetxoak ere animatu ziren, baita irabazi ere. Angel Mariezkurrena eta Niebes Biurraenak osatu zuten epaimahaia. Ulibeltzak Elkartean egin dako **bazkarira** 25 bat lagun joan ziren. Gero, alde batetik, **ginkana** egin zuten gazteek eta bertzetik, haurrek hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten. Alde batetik, **marrakzi lehiaketa** egin zen eta 31 partehartzaile izan ziren. Lehenbiziko mailan (Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 2. mailara) Helene Rekarte izan zen irabazle eta Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitartekoan Jon Iriarte Mikeperizena nagusitu zen. Angel Mariezkurrena, Raket Urtxegi eta Maider Petrirena osatu zuten epaimahaia eta maila haundiko lehiaketa izan zen. Gero, **merendua** eta marrakzi lehiaketako **sari banaketak** egin ziren. Haur tikiendako **jokoak** ere izan ziren eta herriko **antzerki taldearen emanaldi** hagitz polita ikusteko aukera ere izan zen. Ilunabarrean **triki poteoa** egin zen eta tortilla patata lehiaketako **pintxoak dastatzeko** aukera ere izan zen. Igandean, berriz, **merkatua eta gazta lehiaketa** izan ziren. Giro onean joan zen eguna eta jende andana ibili zen. Gazta lehiaketara bederatzi gazta aurkeztu ziren eta irabazleak Miguel Anzizar eta Koro Elizondo izan ziren. Bigarren Josefina Jorajuria gelditu zen eta hirugarren Primekobordako gazta. Mañoli Agirre, Arkaitz Vicente eta Raket Urtxegik osatu zuten epaimahaia. Horrez gain, zozketatu zen saskia Bilboko Isabelendako izan zen.



ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → NAFARROAKO HAZIEN SAREAREN LAGUNTZAREKIN

Aurtengo Haziaren Jaia larunbat honetan egingen da

Goizez haziak trukatu eta solasaldiak egingen dira eta eguerdian bazkaria

Fermin ETXEKOLONEA

Zalantza bat edo beste eduki badute ere, azkenean aurtengo Haziaren Jaia larunbat honetan, apirilak 21, ospatuko da. Nafarroako Haziaren Sarearen laguntzarekin antolatuta da eguna eta aldi honetako ekitaldiak goizez bakarrik izanen dira.

Goiza haziak trukatzeko eta solasaldiak egiteko aprobetxatuko da eta ondotik bazkaria egingen da, baba eta babarrun dastaketarekin.

Arrateren estetika zentroa lekuz aldatua

Arrate Leizeagak Donezteben duen estetika zentroa tokiz aldatu du eta Eliza karrikako 18. zenbakira pasatu da.

Apirilaren 7an egin zuen egoitza berriaren inaugurazioa.

Komunikabideen alde musean

Xaloa, Xorroxin eta TTPI-TTAParen aldeko mus txapelketa egin zen apirilaren 7an Herriko Ostatuan eta zortzi bikote bildu ziren. Horien artean, Txomin Uhalde eta Hilario Mutuberria nagusitu ziren.

Jaiotza gehiago

Beti pozgarria da herrian haur berriak jaio direla aditzea eta aldi honetan ere bi herritar gehiago gairela aipatu behar dugu. Eñaut Babaze Salaburu martxoaren 21ean jaio zen eta Asier Telletxea Rekarte martxoaren 26an. Lerro hauen bidez, ongietorria bi ttikiei eta zorionak Eñauten guraso Igor eta Yolandari, baita Jexux Mari eta Pilartxo atautxi-amatxiri ere. Eta berdin Asierren guraso Mikel eta Itziarri eta Joxe Lorenzo eta Ixabel atautxi-amatxiri ere.



ARGAZKIA: TOMAS IBARRA

Herritarrak sagardotegian

Dagoeneko urte batzuk badira kuadrilla bat elkartu eta Aste Santuetan sagardotegira ateraldia egiten dutela. Aurten ere halaxe egin zuten. Hemeretzi lagun Petritegi sagardotegira joan ziren txotx egitera.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariek eta merdi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratuetarako laguntzak ☛ Erpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diu-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta alorpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedientiak ☛ Bidegaitasun planak eta sumentututak
---	--

artekari@artekari.com

LEZAKA: Siltirio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
 BUREATA: La Yifo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713



kukuka

KUPA KUPA KUPA



%10eko
DESKONTUA

gaitzerri eta berridun
arropetan

GIZARTEA → HAUR PARKEA

Udalaren dirulaguntzarekin auztitzarrak parkea egiten hasi dira auzolanean

Herritar batek utzitako lur eremuan ari dira egiten

Arkaitz MINDEGIA

Haurrendako parke bat egiteko Aurtitzen dagoen eskaria dela eta, parkea egiteko dirulaguntza ematea erabaki du Udalak.

Herriko Etxearen laguntza horrekin, haurren parkea herritarrek auzolanean egiten ari dira, herritar batek Udalarari utzitako lur eremuan, hain zuzen.

Bardoak 2012

Martxoaren 31n jokatzen Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketaren finala Leitzan eta herriko bertsolarien eta musikarien Erauntsi taldea han aritu zen. Ri-

mak Exkaxko taldeak irabazi zuen, baina ber- tze taldeek ere lan txu- kuna egin zuten.

Aste Santua

Aste Santuko opor motzak ederki joan ziren. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina turistak herriko txo- koak bisitatzen eta ar- gazkiak ateratzen ikusi genituen.



ARGAZKIA: MAITE RUIZ DE SOLA

Malerreka kantuz

Malerrekako Euskara Zerbitzuak antolatutako Malerreka Kantuz ekimenarekin hitzordua izan genuen apirilaren 6an. Jende andana bildu zen plazan eta handik hasita, herriko txoko guztiak kantuz eta musikaz bete zituzten. Arkaitzek soinuarekin, Garbiñek txirularekin eta Ekiñe eta Ilargik panderoarekin paratu zioten aitzinetik prestatutako kantutegiari musika. Angel eta Patxi Mariezkurrena, Alfredo eta Nerearen gidaritzapean gisa guztietako kantak abestu zituzten: Aitorren hizkuntza zaharra, Iturengo arotza, Habanera... Hagitz polita atera zen. Udalak emandako berendu-afari ederrarekin akitu zen Malerreka Kantuz.

ARGAZKIA: IRUNE BAZTERRIKA



60 urte ezkontuta

Badute ospatzeko motibo nahiko Zubialde baserrian, Manuel Bazterrika eta Hilaria Mutuberriak Diamantezko Ezteiak bete baitituzte aste honetan, apirilaren 17an. Duela 60 urte ezkontu ziren Zubialde baserri- rira, Manuelen sortetxera. Hilaria, berri- z, Sotillenekoa da sortzez. Zorionak bie!


APARAN, S.A.
BRINKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak.
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukai- de mogleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Bamurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak, esku- erremintak, itabi.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

EDARRIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ELGORRIAGA

GIZARTEA → DEIALDIA

Herriko Ostatua hartzeko deialdia egin du Udalak

Herritarra izan ala ez, edozeinek har dezake

Mattin LARRALDE

Herriko Ostatua hartzeko epea zabaldu du Udalak. Urte batez herritar batek eraman du horko martxa. Hasiera batean langabezian zegoelako hartu zuen ardura, baina gero, lana agertu zitzaion eta denarekin ezin zuelako segitu, Herriko Ostatuko lana utzi egin behar izan du.

Hori dela eta, hasiera batean, bando bidez ostatua hartzeko aukera herritarrei ematea erabaki zuen Udalak,



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Urte batez herritar batek izan du Herriko Ostatuaren martxaren ardura.

baina orain nahi duten guztiek izanen dute ostatua hartzeko aukera, herritarra izan ala ez.

Lerro hauen bitartez, herri ttiki polit honetako ostatua hartzera animatu nahi zaituztegu. Interesatua

dagoenak eta harremantetan jarri nahi duenak telefono honetara deitzen ahal du: 648 525071.

Itxarone eta Santosen Urrezko Ezteiak

Bi herritarrei zorionak eman nahi dizkiegu, Urrezko Ezteiak egin dituztelako. Itxarone eta Santosek 50 urte bete dituzte ezkontuta. Segi beti horrela zuen umore onarekin.

Turistak Aste Santuan

Aste Santu honetan aspaldiko urteetan ikusi den jende gehiena ibili da gure herri bazterretan, bai bainuetxean, bai herrian barna pasean eta bai jattetxean ere. Landetxeetan ere turista aunitz izan dugu Elgorriagan.

GIZARTEA

MERKATARITZA → CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN ESKUTIK

Enpresa ttiki eta ertainentzako ikastaroak prestatu dituzte Leitza eta Lekunberrin

Zergen eta kontabilitataren kudeaketaren ingurukoa da

TTIPI-TTAPA

Enpresa ttiki eta ertainei, dendei, autonomoei eta enpresa turistikoei zuzendutako ikastaroak antolatuta ditu Cederna-Garalurrek apirilera.

Dagoeneko batzuk eginak dira. Apirilaren 10ean, ziurtagiri digitala eta nortasun agiri elektronikoa buruzko tailerra egitekoa zen Donezteben eta apirilaren 12an ikastaro bera Leitza.

Aste honetan, berriz, asteartean eta ostegunetan, zerga kudeaketaren inguruko tailerra egingo ari dira Leitza udal liburutegian, 09:00 eta

13:00etara. Zein zerga eta zergatik ordaintzen den jakiteaz gain, BEZaren eta PZEZaren zein erregimen den egokiena kalkulatzeko ikastaroak ari dira, zerga guttiago ordaintze aldera. Araubideen arteko desberdintasunak ere eza gutuko dira, eta bakoitzaren ondorioak. Parte-hartzaile guztiek bederatzina tutoretza-ordu ere izanen dituzte.

Apirilaren 23 eta 24an, kontabilitate kudeaketaren inguruko ikastaroa egingo da Lekunberriko Mitxasenea Kultur Etxean, 09:00etik 13:00etara. Aholkularia ulertzea ahalbidetuko duten oinarriko kontabilitate-ezagutzak lortzeaz gain, balantzetan emaitzen konturak zertarako balio duten eta nolako informazioa ematen duten uler-

tzen, norbere enpresaren egoeraren analitiko abiaturak erabakiak hartzen eta administrazioarekin egunean egoteko, norbere kontabilitate betebeharrak eragutzen erakutsiko dute. Hemen ere, parte hartzen dutenek bederatzina tutoretza ordu izanen dituzte.

Izen ematea: 948 567010 edo sakana.admin@cederna.es-en.

MALERREKA-BERTIZARANA

GIZARTEA → GAZTEAK

Gazteei aisialdirako jarduerak eskaintzeko Aintziña taldea sortu dute

Taldearendako logotipoa bilatzeko lehiaketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Gazteen aisialdi faltari eta individualismoari aurre egiteko, Aintziña Aisialdi Taldea sortu dute Malerreka eta Bertizaranako hainbat gaztek. Duela urtebete Malerreka-kako Gazte Asanbladak gazte izanda, zein arazo dituzten galdetu zien inguruko 100 gazteri eta kezka haien artean aisialdi falta agertu zen, eta horrekin loturik indibidualismoa. Bada, arazo honi buelta ematera dator Aintziña taldea.

Denbora librerako ekintzak egiteaz ardura-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mallerreko Gazte Egunean haurrendako ekintzak ere prestatzen dituzte gazteek.

tzen da taldea eta bilerak hilabeteko azken orztiraletan egiten dituzte Malerreka-kako Mankomunitatearen egoitzan, Donetzteben. Eskualdeko gazteriaren arteko harremanak sendotu bide-nabar, gazteria mugitzea da helburu nagusia, eta

honekin batera herrieta-ko gazteek elkar ezagutzea, kontsumoan oinarritu gabeko aisialdi errendua bultzatzea, euskal kultura sustatzea, munitduko kulturekin harremanetan jartzea eta eskualdeko herri bizi ematea. Antolatuko diren ekin-

tzak gehienbat gazteei bideratuak egonen badira ere, adin guztietako jendearendako ekimena antolatzen saiatu nahi dute. Bertzalde, garbi utzi nahi dute jarduera hauek irekiak izanen direla eta nahi duenak parte hartzen ahal duela.

LOGOTIPO BILA

Taldea sortu berria denez, logotipo bila dabilta eta horretarako logotipo lehiaketa paratu dute martxan. Hauek dira baldintzak: «koloretan edo zuri-belztzean izan daiteke, gazteak garelara eta aisialdi talde bat dela kontuan hartu behar da eta ordenagailuz edo eskuz egina izan daiteke».

Logotipoa apirilaren 27a baino lehen aurkeztu behar da. Egun horretan 20:00etarako Malerreka-kako Mankomunitatera eraman beharko da edo bertzeala, helbide honetara bidali: *Leitzako errepidea 1, 3. ezkerre*.

Bildutako lanekin erakusketa eginen dute maiatzaren 26an Zubietan eginen den Malerreka Egunean, eta batek jasoko du saria.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafulla, 18 • IRUÑA
948 230 634

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ORTZEGUN SANTUAREKIN

Gaztain ximelen eskea egin dute aurten ere Beintza eta Labaiengo neska-mutikoeak

Goxoki saila bildu dituzte etxez-etxe ibilita

Arantxa ITURRALDE

Beintza eta Labaiengo Ortzegun Santuko tradizioa ez da ospatu gabe utzi aurten ere eta urtero bezala, haurrak Ortzegun Santuko mezaren ondotik, etxez-etxe ibili ziren goxo-

kiak biltzen, Beintza-koak Beintzan eta Labaiengoak Labaienen.

Goxokiak jaso aurretik, abesti hau kantatu zuten etxe bakoitzaren atarian: *Gaztain ximal ximalak, andriak elizera, gizonak tabernara, haurrak hurretera, apeza txokoltia hartzera.*

Garai batean, gaztainak, intxaurrak eta urrak banatzen zitzaizkien haurrei.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE ETA ARANTXA ITURRALDE

Neska-mutikoeak pozik ibili ziren etxez-etxe goxoki eskean.

SALDIAS

KIROLA → PALA TXAPELKETA

20 lagunek eman dute izena

Jendea sumatzen da egun hauetan frontoian entrenatzen

Markel LIZASOAIN

Hasi da pala txapelketa, eta jendea sumatzen da frontoian, gizenkiak kendu nahian edo.

Hamar parek eman dute izena, hondarreko. Batzuk kanpoan gelditu dira, gauza bat edo bestea dela medio, eta, neskari ez baita apuntatu, final bakarra izanen da sanjoanetan. Bosteko bi taldetan daude banatuak pilotariak, eta ligaxka modura jokatuko dituzte launa partida, apiriletik garrilera. Talde bako-

itzeko lehenbiziko biek semifinalak jokatuko dituzte, sanjoanak aurrean. Herritik hiru pareja atera dira, hirurak anaiak, eta gero, bi misto daude: saldistarrak eta eratsundarrak. Urroztik, berriz, lau lagunek eman dute izena, eta Zubietatik eta Oronoztik, beste bik. Ortzirale guzietan, bi partida izanen dira, eta

batzuetan, baita hiru ere. Binako guziei tokatuko zaie bi ortzirale segidan jokatzea.

Jendea biltzeko aitzakian prestatu dute txapelketa, eta herriko giroa pixka bat bixitzeleek eskatu dute saiatzeko partidak ortzirale arratsaldeetan jokatzen. Ortzirale honetako, apirilak 20, partidak:

19:00etan, Xabier eta Imanol, Xubeldi anaien kontra. 20:00etan, Antton eta Urko, Danbolineneko anaien kontra, eta 21:00etan, Melo eta Joseba, Josuren eta Alainen kontra. Apirilaren 27an, berriz, Melo eta Joseba, Markel eta Mikel Mikelengo lehen-gusuen kontra, eta 21:00etan, Joseba eta Ibai eta Urrutia anaiak.

1. TALDEA	2. TALDEA
Xabier Madariaga-Imanol Juanena	Antton Telletxea-Urko Loiarte
Xabier Zubeldia-Iñigo Zubeldia	Garikoitz Juanena-Haritz Juanena
Melo Berro-Joseba Arizmendi	Joseba Babaze-Ibai Juanena
Josu-Alain Urrutia	Oskar Urrutia-Iban Urrutia
Markel Lizasoain-Mikel Baleztina	Migel Mari-Unai Urrutia

GIZARTEA → MEGALITOAK

Ezagutzen ez genituen historiaurreko aztarnak aurkitu dituzte

Olegi eta Arbea aldean monumentu megalitiko berriak ikusi dira

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurrako mapa egiten ari den Xabier Tabernaren laguntzari esker, herritarrentzako ezezagunak ziren aztarnen berri jakin ahal izan da. Alde batetik, Olegi aldean, Iruñari aldera doan bidea utzita eta harrespil edo cromlecharen eskuinean, beste bi ere badaude, sasi artean baina ondo seinaleztatuak.

Bestalde, Arbea inguruan ere trikuharri zoragarri bat dago. Eratsungo lur eremuan dago, baina harat joateko Ezkain eta Erakurriko bidetik barna jeitsi behar da. Mikeleneko borda ezkerrera utzita, kilometro pare batez aurrera egin behar da, eta Pilota Sorora doan bidearen ia amaieran dago trikuharri hori, 100 metro

ezkerretara, bidetik kanpo eta ongi seinaleztatua. Hortik pixka bat aurrerago beste bat ere badago. Merezki du ikustera joateak. Ezkaingo zelaigunetik ordu bat behar da oinez hara ailegatzeko.

IBILALDI BATERAKO GONBIDAPENA

Errotaren inguruan ere paseo bat egin daiteke. Ez dago sobera egoera onean, baina atzeko aldera joanez gero, presatik ura nola sartzen den eta errekatik ura hartzen zuen kanala ikus daitezke. Aurrerago, zirkulu itxura duen borda batek arreta piztuko dizue, eskualdean forma hori duen kasu bakarra izanen baita.

Hortik hurbil, ermitatik jeisten den erreka-ondoa, kobazulo txiki bat ere badago, eta tradizioaren arabera, altura txikiko gentileak hor bizitu ziren. Tornainea baserrirako bidea igoz, eta erreka aldera aurrera eginez, tamaina haundiko gartzainondoak ere ikus daitezke, herritarren



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian Arbea alderdian aurkitu den trikuharria ikus daiteke eta beheitikoetan, ezkerrekoan, itxura borobila duen borda ageri da eta eskuinekoan, ur-jauzia. Bertatik bertara ikustea merezi duten hiru toki dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Istripu harrigarria

Basakabitik hurbil, auto batek istripua izan zuen apirilaren 4an. Harrigarria bada ere, ez zen inor zauritu. Barandaren kontra indar haundiz joan zen autoa, gidariaren aldeko atea errotik ateratzeraino. Argazkian ikus daitekeenez, autoa metro batzuk behera erori zen.

arabera, 400 urte izan behar dutenak. Hiru kilulabe ere badira, eta

horietako bat egoera onean, gainera, eguzkareko zubi batetik pa-

satuta. Ibilaldi hau ur-jauzi batean amaitu daiteke.

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka sarea - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

Egin zaituz

ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034) 948 63 54 58

Gure Haragia
Nuestra Carne

HEDABIDEAK

WWW.TTIPI.NET WEBGUNEA → FUNTZIO BERRIAK ESTREINATU BERRI DITU

TTIPI.NET orain multimedia kanal eta sakeleko telefonoetarako bertsioarekin

Aurrerantzean multimedia kanala sakelekoetan ere ikusiko da

TTIPI-TTAPA

Teknologia berrieta- ra egokitzeko lanean se- gitzen du TTIPI-TTAPAK. Helburu horrekin, azke- neko asteotan bi berri- kuntza nabaritu izanen ditu *www.ttipi.net* web- gunearen erabiltzaileak: alde batetik bideoz hor- nitutako multimedia ka- nala sortu dela, eta ber- tzetik, webgunea gailu eramangarrietan erra- zago ikusteko bertsio berezia aktibatzen de- la automatikoki sakele- ko telefono edo tableta batetik TTIPI-TTAParen web orrian sartuta.



Aurrerantzean, *m.ttipi.net* bertsioa kargatuko da automatikoki gailu eramangarrietan

BERRIKUNTZA GEHIAGO ASTE HONETAN

Aste honetan aktiba- tuko da multimedia ka-

nala ere tableta eta sa- keleko telefonoetako plataforma desberdine- tan ikusteko aukera

(iPhone, Android, Sym- bian, WindowsPhone eta Samsung bada), eta horrekin batera, albis-

teak sare sozialekin lot- zeko posibilitatea izan- nen da gailu eramangarrietatik.

Zure negozioaren berri mundu guztiak izan dezan

Bezero berriak — Berehalako emaitzak

getitoki.com | hantzen.net | Guzman Jarrettu

PACK
egin eta banatu

- Diseño profesionala
- Esku-erri personalizatuak
- Koloretan inprimatuak
- Banaketa masiboa zuk nahi duzun herrietan

854€*

2 ALDITAN INTERESIK GABE

427 € x 2 hilabete

*2012/04/30 bitarte halio du

*BEZa sartu gabe

BEZAKO DUTAN

948 635 458
publi@ttiipi.net

AUKERA PAREGABEA

PACK PREMIUM | EGIN eta BANATU

Diseñatu, inprimatu eta 10.000 etiketara banatzea
BAZTAN BERTZARANA MAJERREKA BURTZISAN

PACK PLUS | EGIN eta BANATU

Diseñatu, inprimatu eta 3.400 etiketara banatzea
Ardiñotz BAZTAN

(T3,50€ x 2 alditan) 389 €

PACK BERRIA | EGIN eta BANATU

Diseñatu, inprimatu eta 1.000 etiketara banatzea
Ardiñotz BERA

(99,50 € x 2 alditan) 199 €

GIZARTEA → KIROLA EGITEKO EGUNA

59 kirolari bildu ditu Arkupeak elkartearen Gimnasia Egunak

Urtetik urtera gero eta kirolari guttiago biltzen dira

TTIPI-TTAPA

Arkupeak Elkarteko urteko Gimnasia Besta egin zuen apirilaren 12an, Berako kiroldegian.

Urtetik urtera kirolari guttixeago biltzen dira. Gainera, bezperan Ordiziako Ferian izan ziren Arkupeak elkarteko 309 lagun eta horregatik ere, bi egun segidan ateraldia egitea gehiegi delakoan edo, ikusleak ere ohi baino guttixeago hurbildu ziren. Murrizketak musika arloari ere ukitu

dio, azken urteetan Arizkungo Larraldetarren txistu eta atabal doinuekin egiten baitzen aurkezpen kalejira, baina aurtentzen, megafoniako musikarekin egin zuten.

Lehenik Goizueta eta Leitzatik etorritako entaldekak eskaini zuten euren saioa eta ondotik, Doneztebe, Elizondo eta Urdazubiko kirolariak osatutakoak aritu ziren, biak ala biak Patxi Chocarro monitorearen erra-netara. Saioa bukatzeko, denak elkarrekin Fandangoa eta Arin-Arina dantzatu zuten eta akautu bezain abudo, 150 bat lagun Zubiondo jate-txera joan ziren bazkal-tzera.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Soinketa egiten aritu ziren Arkupeak-eko lagunak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ordiziako Artzain Egunean

Asteazkeneko azoka izaten da Ordizian, baina apirilaren 11n, horrez gain, Artzain Eguna ere ospatu zuten. Arkupeak Elkarteko ez zuten aukera alferrik galdu nahi izan eta 309 lagunek parte hartu zuten ateraldian.

GIZARTEA → JUBILATUEN IRTEERAK

Arkupeak-eko lagunak Erriberrin

Martin URRUTIA

Arkupeak elkarteko ekibidaia ederra egin genuen martxoaren 28an Erriberrin. Bi autobuse-tan jende mordoska bildu ginen, batek Baztan eta Doneztebeko kideak hartuz; eta besteak Miarritz, Irun eta Berako lagunak bilduz, Ezkurra erreka, Urumea, Leitzaran eta Larraun erreka-ko bidaiariekin bete. Begiak zabalik, mendi arte estuetatik Erriberako leihoz zabalera, Euskal Herriatik atera gabe, Erri-

berri bildu ginen, jakin-minez beteta.

Egun ederra aterazen. Ez zen eguzkiaren bila joan beharrik izan, Leitzako nahiz Tafalla inguruko haize errotak, denak, geldirik baitzeuden gure izar haundiaren diztirari begira.

Oliteko gaztelu zaharra paradore bihurtu da goenez, gaztelu berria, Carlos III.a Nobleak eraikia, eta Santa Mariaren eliza daude ikusgai. Eta hori irekitzen zaizkigu begi aurrean hainbeste ha-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak-eko kideak Erriberriko gazteluan.

rriri istorioz beteak, artez aseak, elizako ate nagusitik erretularaino. Gidariaren argibideak ahalik eta hobekien entzunez gazteluko gelak, dorreak, ur-putzua, izotzmeta eta abar ikusi genituen. Eta azkeneko begirakada bat gailurretik landa zabale-tara: mahastiak, olibon-

doak... eta lanbro tartetan, mendi gainean, Uxueko Amaren dorre-eliza, behin bateko gure euskararen muga.

Piedemonte bodega ere bisitatu genuen, bertako ardo gorri, beltz, eta txuria dastatuz, eta hainbeste mila urteetan ikatitako erak gure eskueta-

ra isuri zitzaizkigun, ha-bearteko modernoak eta tresna berriak ikusiz.

Bazkaltzeko, Erriberri-tik Erriberara hedatu ginen, Marisolena Kadreitako jatetxera. Eta Iruñean geldialditxo bat eginez, burua ikaskizunez bete eta begiak erdi zabalik, etxerat itzuli ginen.

LEITZA

GIZARTEA → LEITZATIK IRUÑERA

Goi Tentsioko Linearen aurkako mendi martxak 500 bat lagun elkartu ditu lau egunetan

Antolatzaileak gustura agertu dira Mendi Martxaren erantzunarekin

JM BARRIOLA

Apirilaren 5ean hasi zen Goi Tentsioko Linearen aurkako Mendi Martxa Leitzatik, eta lau egunetako martxaren ondoren, igande goizean iritsi zen bere helmugara, Iruñeko Gaztelu plazara.

Mendi Martxa lau etapatan egin zen: lehen egunean Leitza, Gorriti eta Aldatz arteko bidea egin zen; ostiralean Aldatz, Jauntzarats eta Oskotz artekoa; larunbatean Oskotz, Añezkar eta Berrioplano arteko ibilbidea osatu zuten, eta igandean, azkenik, Iruñeko Gaztelu plazan amaitu zuten martxa elkarteratze batekin, REE S.A.-k Nafarroa eta Gipuzkoa artean egin nahi duen Goi Tentsioko Linea salatuz.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Mendi Martxaren hasiera arrakastatsua izan zen, ehun lagun inguru bildu baitziren Leitza, eta txistularien laguntzarekin abiatu ziren Gorriti aldera Areso ere zeharkatuz. Gorritin bazkaldutuz. Gorritin bazkaldutuz, martxak Al-

datzerantz jo zuten eta bertara iluntzerako iritsi ziren. Han afaldu eta gaua pasatu zuten, hurrengo egunean Jauntzarats aldera abiatzeko indarrak bilduz.

Antolatzaileak gustura agertu dira Mendi Martxarekin, partehartzea altua izan baita, lau egunetan 500 bat pertsona bildu baitzituzten. Azkeneko egunean Iruñean egindako elkarteratzean ehun bat lagun bildu ziren.

2012. urtean 500. urteurrena

Nafarroa estatu independentea konkistatua izan zela 500 urte beteko dira aurtengo ekainean. Hori dela eta, Nafarroa osoan ekimenak antolatzen ari dira gertaera hau gogorazteko. Gure eskualdean ere egitaraua prestatzen ari dira: inguruko herri guztietan hitzaldiak, aldarrikapenak, ekimenak...

Apirilean hasiko dira hitzaldiak. Larunbat honetan, apirilak 21; 19:00etan Arribeko udal-etxean *1512 Nafarroaren konkista* hitzaldia eskainiko da. Apirilaren 28an Gorritiko gaztelutara mendi ibilaldia antolatu da eta han ekitaldia egingen da. Apirilaren 29an Baigorriko Nafarroaren Eguna joateko deialdia egin dute



ARGAZKIAK: PABLO FEO

Leitza eta Iruñea lotu zituzten Goi Tentsioko Linearen aurkako mendi martxak.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Giro bikaina Bardoak 2012 ekimeneko finalean

Amazabal pilotalekuan bildutako 500 lagunaren aurrean eman zitzaion amaiera Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketari. Hasiere-hasieratik giro ezin hobea nagusitu zen eta bertsozaleek hiru talde finalisten lanarekin ederki gozatu ahal izan zuten. Saioa bukatzeko, duela gutxi hil zen Manuel Lasarte bertsolariari omenaldia egin zitzaion. Herriko bertso eskolako gaztetxoek eta Migel Mari Elosegik bertso bana kantatu zituzten, eta ondotik, Jaione Olazabalek Lasartek berak idatzitako bertsoak kantatu zituen. Saioaren ondotik, triki poteoa egin zen herrian barna eta eskolan herri afaria.

eta maiatzean erakusketak eta hitzaldiak izanen dira herrietan. Ekainaren 16an, berriz, ekitaldi nagusia Iruñean egingen da eta hara joateko deia ere zabalduko da.

Ikastaroak

Apirilean Cederna Garalur Elkartek hiru

ikastaro antolatu ditu Leitza eta Lekunberrin enpresa txiki eta ertain, autonomo eta dendetarako. Ziurtagiri digitala eta nortasun agiri elektronikoa buruzko tailerra joan den astean egiteko zen. Kontabilitate eta zerga kudeaketa enpresa edo dendak eramateko oso ba-

liagarria da eta zerga kudeaketaren inguruko ikastaroa astearte eta ostegun honetan, apirilak 17 eta 19, egiten ari dira, 09:00etatik 13:00etara liburutegian. Kontabilitate kudeaketarena apirilaren 23an eta 24an izanen da 09:00etatik 13:00etara Lekunberrin.

GIZARTEA → EMAKUMEEN BATZORDEA LANEAN

Emakumeen intereseko gaiak bildu nahi dituzte formazio saioak antolatzeko

Proposamenak
hilabete
bukaera arte
jasoko dira

TTIPI-TTAPA

Leitzaldeko Emakumeen Batzordea hasi da lanean. Martxoaren 28an aurkezpena egin zuen Goizuetan eta herriko eta Aranoko 20 bat emakume elkartu ziren. Emakumeen formakuntza beharrak eta nahiak asetzeko helburua jarri zen mahai-gainean eta bide horretatik, bakoitzaren intereseko ikastaroak eta gaiak proposatzeko deialdia zabaldu du.

Apiril bukaera arte egonen da proposamenak aurkezteko aukera. Tarte horretan, Amaia kafetegian eta Gizarte Zerbitzuetan zerrendak egonen dira eta nahi izatera, emakume.batzordea@gmail.com helbidera idatzita edota 948 510840 telefonora deituta ere bilduko dira ideiak.

Bilketa egin ondotik ikusiko da zein forma-

BILKETA
Amaia kafetegian eta Gizarte Zerbitzuetan proposamenak biltzeko zerrendak egonen dira eta emakume.batzordea@gmail.com helbidean edo 948 510840 telefonoan ere bilduko dira.

kuntza saio egin daitzkeen herrian nahiz eskualdean.

Hitzaldi sorta

Guraso Eskolak hainbat solasaldi antolatu ditu guraso eta interesa duten guztientzat. Alde batetik, asteazken honetan, apirilak 18, eta heldu denean, hilak 25, *Nola motibatu seme-alabak eskolako lanak egiteko* hitzaldia eskainiko du Belen Perez de Pradok. Maiatzaren 2 eta 9an, bestalde, *Sare sozialak eta pribatutasuna eta kontrola* izanen dira hizpide, Inma Iparragirrekin. Eta maiatzaren 16an eta 23an *Seme-alabak hezitzen behar dutan segurtasuna* gaiaz ariko da Teresa Martenez.

Hitzaldiak Andres NARBARTE Xaltoa eskolan eskainiko dira eta denak 15:00etatik 17:00etara izanen dira.

Maiatzeko lehenengo asteburuan ospatuko dira Txino auzoko fiestak



Joan den urteko festetako ekitaldi arrakatsuetako bat asto karrera izan zen.

Maiatzeko festa nagusiak prestatzen burubelarri dabil Gazte Asanblada: Txino auzoko fiestak. Ofizialki maiatzaren 5ean hasiko badira ere, Zubiondo tabernak bezperatik antolatu ditu ekitaldiak. Hala, ostiral ilunabarrean, maiatzak 4, **bertsolaria** izanen dira eta gauean **mus txapelketa**.

Larunbata izanen da egun nagusia. 11:00-11:30 aldera herriko neska-mutikoei **dantza emanaldia** eskainiko dute. 12:00etan **txupinazoa**

botako da eta ondotik, auzoko frontoian **pala partida mistoa** jokatu da, Txino auzoko bikote baten eta herriko beste bikote baten artean. Botilleroek koplaka emanen dizkiete aholkuak pilotariei. Eguerdian **herri bazkaria** egingen da eta arratsaldean **umeentzako jokoak** izanen dira. 18:00 aldera **Arrabots taldearekin** dantzako pausuak ikasi eta dantzatzeko aukera izanen da eta gauean, garajejan, **kontzertuak** izanen dira.



ARGAZKIAK: ANDRES NARBARTE ESKOLA

Eskolako ikasleak aktore eta dantzari

Eskolako lagunek hainbat antzerki eskaini zituzten apirilaren 4an jendaurrean. Haur Hezkuntzako 3 urtekoek *Lehoi baten bila noa* abestia antzeztu zuten. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoek, berriz, *Astoa ikusi nuen* antzerkia egin zuten. Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleek *Ipuinen herriko erregea* eta beste dantza bat eskaini zituzten eta 2. mailako ikasleak *Amona Benidorren* antzezlana egin zuten. 5. eta 6. mailakoek *Mexikar bat Goizuetan* eta 3. eta 4. mailakoek eta DBHko 1. eta 2. mailakoek *Tu si que vales, Goizuetara iritsi da* antzezlana eskaini zuten. Guraso eta herritar asko hurbildu zen emanaldiak ikustera eta ederki gozatzeko aukera izan zuten ikasleen lanekin.



BAZTAN

UDALA → ASEGURUAK

Aseguruetan 2010ean baino ia 17.000 euro gutiago gastatu direla jakinarazi du Udalak

Aseguruen inguruan oharra kaleratu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Diru publikoaren kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin lanean ari dela oroitarazi du Udalak ohar bidez. Bide horretan, aurtengo aurrekontuetan gastu arruntaren sailean 100.000 euro aurreztu ditu. Gisa berean, Udalak urtero kontratatzen dituen erantzukizun zibil eta eraikinetako aseguruetan, aitzineko urteetako kontzeptuak mantentzeaz gain, berriak sartu dituela jakinarazi du. Eta hala ere, 16.676,10 euro aurreztu ditu: «2010ean aseguru guztiengatik 60.576,10 euro ordaindu baziren, aurten 43.900 euro ordainduko dira», adierazi du Udalak.

Aseguru hauetan aitzineko eraikin guztiak barrenean sartu direla dio Udalaren oharra. Bertalde, igerilekuari dagokionez, haren aseguru kudeatzen duen enpresak ordaintzen duela gogoratu du. Horrez gain, azaldu nahi izan du *Continente* deitzen den koibertura etxebizitza bat eraikitzeko erabiltzen diren materialek osatzen dutela (egitura, paretak, ateak, leihoak, elektrizita-

te eta bertze instalazioak...) eta 24.525.343tik 24.962.723ra igan dela. Eta *Contenido* delakoa, hau da, etxe barreneko ondasun higigarriak eta ez eraikigarriak (altzariak, oheak, lanparak, kortinak, etxe-tresna elektrikoak...) 1.792.752 eurotik 2.770.693ra igan da.

Kultur jarduerak egiteko laguntzak

Baztango herrietan antolatzen diren kultur jarduerak diruz laguntzeko deialdia zabaldu du Udalak. Aurten, tramitazioa errazte aldera, Euskara eta Kultura arloko dirulaguntzak eskuratu ahal izateko udal erregistroan eskabide bakarra aurkeztu beharko da jardueren gastuen justifikazioarekin batera. Horretarako epea abenduaren 15ean akituko da.

Informazioa eta inprimakiak www.baztangoudala.eu-n daude, eta zailtzak argitzeko, Euskara edo Kultura Zerbitzuekin harremanetan jartzen ahal da (euskara@baztangoudala.eu - 948 580006 edo kultura@baztangoudala.eu - 948 581279).

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

	LEHEN	ORAIN
Erantzukizun zibila	300.510 euro	3.000.000 euro
Publizitate E. Z.	Ez sartua	Sartua
Norbanakoak aukeratu-tako defentsa juridikoa	Ez sartua	6.000 euro arte
Lapurreta	Ez sartua	Sartua
Suteak	300.000 euro arte	300.000 euro arte
Kutsadura E. Z.	Ez sartua	600.000 euro arte
Frankizia	300 euro	0 euro

ERAIKINEN ASEGURUA

	LEHEN	ORAIN
Zaintza zerbitzua	Ez sartua	6.000 euro arte (3 egun gehienez)
Artxiboko dokumentuak ordenean jartzea	Ez sartua	Sartua
Soropila, zuhaitzak eta landareak	Ez sartua	Sartua
Langileen desleialtasuna	Ez sartua	5.000 euro arte eta %10eko frankizia
Ofirmatikako ekiptoak	Ez sartua	15.000 euro arte
Kalte estetikoak	Ez sartua	Sartua
Asmo txarreko ekintzak	Ez sartua	Sartua

IBILGAILUEN ASEGURUA

	LEHEN	ORAIN
Gidarien mediku laguntza	Ez sartua	30.500 euro
Berehalako mediku laguntza	Ez sartua	Gastuen %100
Laguntza psikoemotionala	Ez sartua	Sartua
Etxebizitza egokitzea	Ez sartua	15.000 euro arte (%60ko elbarritasuna)
Kotxea egokitzea	Ez sartua	2.000 euro arte (%60ko elbarritasuna)
Hileta zerbitzuen koordinazioa	Ez sartua	Sartua
Bidaia asistentzia	Kotxe batzuk sartuak	Ibilgailu guztiak, industrialak izan ezik
Sutea	Ez sartua	Ibilgailu guztiak
Kristala eta parabrisen haustura	Kotxe batzuk sartuak	Ibilgailu guztiak



GIZARTEA → ARRITXURI HARROBIA

Almandozko harrobia haunditzea onartu du Batzar Nagusiak

Almandozen egindako batzarrean ere haunditzearen alde agertu dira herritarrak



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Kintoko desafekzioaren aferan Batzar Nagusiaren erabakia errespetatzeko eskatu zuten hainbat herrietako alkatek eta junteroeak apirilaren 2an. Aretotik ere atera ziren.

aldeko boto jaso zituen bide honek eta sei abstentzio. Almandoztarrek ere batzarrean bide honen alde egin zuten.

PROTESTA

Apirilaren 2ko Batzar nagusian, Magnaren Kintoko herri-lurren desafekzio eskaerari Batzar Nagusiak bi aldiz emandako ezetza bertze behin berrestea erabaki zuten batzarkideek. Aldeko 22 boto izan ziren eta 7 aurka (UPN, Ezkerra eta Elbeteko alkatea).

Kintoko desafekzioaren aferan udal ordezkari batzuen eta aldi berean Batzar Nagusietako kide diren batzuen jarreraren aitzinean, herrietako alkate eta juntero batzuek protesta gisa aretotik kanpora atera ziren. Garbiñe Elizegi Batzar Nagusietako presidenteak, bortz minutuko etena egitea erabaki zuen eta protesta ekimenaren ondotik segitu zuen bilkurak. Batzar Nagusiaren erabakia errespetatzeko eskatu zuten.

TTIPI-TTAPA

Almandozko Arritxuri harrobia haunditu egiten dute. Hala onartu zuen apirilaren 2ko bileran Batzar Nagusiak, aldeko 24 botorekin, kontrako laurakin eta bi abstentziorekin. Eta haunditzearen aldeko botoak nagusitu ziren apirilaren 1ean Almandozen berean egin zen batzarrean ere. Erroldatuak dauden 188 herritarretatik 150ek eman zuten botoa eta 87k harrobia haunditzearen alde egin zuten, 62 kontra agertu ziren eta batak zurian eman zuten botoa. 6,7 hektareako eremua haundituko da.

Bere garaian Batzar Nagusian batzorde berezia osatu zen ustiapen honek herritarrengan zein ondorio izan

zitzakeen azaltzeko. Haunditzeko erabakia hartu aitzinetik kaltetuekin eta enpresako arduradunekin bildu dira batzordekoak, eta enpresari hainbat baldintza paratu zaizkio: harrobiko zabor piletarako lur okupazio berria eskatu beharko du eta urak bideratzeko lubeta egin. Harrobiko ur zikinendako dekantazio baltsa ere egin beharko du, eta segurtasun eremuan dauden giltxaurrondoengana

DATUA

24

ALDEKO BOTO jaso zituen harrobia haunditzeko proiektuak apirilaren 2ko Batzar Nagusian.

tik balorazioa egin eta jabeei kalteordaina eman beharko die. Gi-

sa berean, Abreiko bidea garbitu beharko du pistaren lehengo zabalera berreskuratuz. Proposamenak batzarkide guztien aldeko bozka izan zuen. Sei hilabete izanen du enpresak pista garbitzeko eta gainerako lanetarako, berriz, hiru hilabete.

Harrobia haunditzeaz gain, Batzar Nagusiak ekialdeko bidea aukeratu zuen apirilaren 2ko botazioan, Abreiko bidea, hain zuzen. 24

Okindegia Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
 Espezialitateak parrillan erretako jakietan
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
 Tfnoa: 948 453 403
 31713 ARIZKUN



Kattagorria

Biha txartela

9€ 10€
 DESKONTUA

BAZTAN

GIZARTEA → NABAI 2011N EZTABAIDA

Maite Iturre zinegotziak ez dituela ordezkatzeko dio NaBai 2011ko 'babes taldeak'

Bertze ohar batekin erantzun die Maite Iturrek

TTIPI-TTAPA

«Publikoki garbi eta irmoki adierazi nahi dugu, inongo kasutan, ez ekintza eta ez erabakietan ere, ez garela Maite Iturre Llano NaBai 2011ko udal zinegotziarekin ordezkatuak sentitzen udaletxean». Halaxe dio Baztango NaBai 2011ko Babes Taldeak prentsara igorritako oharra.

Maite Iturrek «zinegotzi kargua hartu duenetik izan duen portaerak eta NaBai 2011ko botoemaile eta jarraitzaileen kontsulta eta zalantzek» eraman dute NaBai 2011 oharra kalera. Alderdiaren arabera, zinegotzi sartzeko erabakia «erabat pertsonala eta alde bakarrekoa izan da eta ez da taldean eztabaidatua izan». Gisa berean, «hartu dituen erabakiak eta bere boto joerak bere kriterio partikular eta eskusiboan oinarritutakoak izan dira», azaldu du NaBai 2011k, «taldean informazio, kontsulta edo eztabaidarik egin gabe».

Hori dela eta, NaBai 2011ren babes taldeak erran du «orain arte Iturrek hartu dituen eta etorkizunean hartuko dituen

erabakiak eta emanen dituen botoekin ez dela bat etorriko eta ez dela horien erantzule egiten». Eta azpimarratu dute, erabaki eta botoak Iturreren «kriterio pertsonal eta propioaren arabera hartutakoak» direla.

Alderdiaren «akordio, erabaki eta jardura erreal eta ofizialak taldean eta lan-bileretan parte hartuz hartzen direla» jakinarazi du NaBai 2011k, «gehiengoari eta taldekideen kriterio orokorra errespetatzeari lehentasuna emanez». Hasiarian alderdian onartu eta erabaki zuten proiektu soziopolitikoaren alde lanean segituko dutela ere gaineratu dute, «orduan adierazitako printzipioekin leialak izanez eta Baztan eta baztandarren interes orokorren defentsan».

ITURREREN ERANTZUNA

Maite Iturre zinegotziak bertze ohar batekin erantzun dio NaBai 2011k argitaratutako idatzari, erran duen bezala, «nik jakin gabe komunikabideetara igorritako *Aclaración de Baztango Nafarroa Bai 2011* izenburuko idatzari», alegia.

Zinegotzi kargua «erantzukizun eta koherentzia politikoa printzipioetan oinarrituta» hartu zuela dio Iturrek. Eta gaineratu duenez, «zerrendaburua zein hau si-



ARGAZKIA: EHIZA ELKARTEA

Iker Arraztoa iruritarra hirugarren izan da Sabaizako basurde arrastoko zakurren lehiaketan

Nafarroako Ehiza Elkarateak antolatuta, basurde arrastoko zakurren proba egin zen apirilaren 7an, Ezprogi-Sabaizako eremuan eta Iker Arraztoa iruritarra eta Kuper bere sabueso arrazako zakurra (argazkian ezkerretara) hirugarren izan ziren.

GIZARTEA → EUSKAL PRESOAK

Bermepetan, Ernesto Prat libre utzi dute

TTIPI-TTAPA

Espainiako Auzitegi Nazionalak onartu egin du Ernesto Praten abokatuek haren espetxeratzearen kontra paratutako helegitea eta 25.000 euroko fidantzapean libre gelditu zen apirilaren 13an. Aldizkari honen edizioa ixtear zela jakinarazi zuten

berria eta hori zen lerro hauek idazterakoan azken ordukoa.

Frantziako Poliziak urtarrean atxilotu zuen Prat Urruñan, eta Pauko Auzitegiak otsailan erabaki zuen Espainiaratzea. Geroztik Madrilen egon zen, joan den ortziraletan aske gelditu zen arte.

natzen duena (hauteskunde-zerrendako bigarrena, Iturre bera) izan ginen Baztango NaBai 2011ko hautagai bakarrik kanpainan hauteskunde programa publikoki defendatu genuenak». Horrekin batera, zera dio Iturrek: «programa hori demokratikoki hautatu nauten, eta ondorioz, ordezkatzeko ditudan boto-emaileekiko hartutako konpromisoa da. Eta programa hori da, hain zuzen ere, kargua hartzean berretsi dudana». Bere helburua bailararen alde lan egitea dela azpimarratu du, «eta ez kontrol edo botere ika-miketean sartzeara,

nigandik desmarkatzen direla diotenei nahi duten bezala». Bere irudiko, «autoizendatutako Baztango NaBai 2011 taldeak prentsara igorritako idazkiak zenbait pertsonen, gehienak aitzineko udal gobernuko kideak, hauteskundeetako hondamendia eta dagoeneko zerrendaburua kaltetu zuen hautagaitzako pertsona berriekiko jazarpen estrategiaren porrotaren ondoriozko inpotentzia agerian uzten du».

Iturrek «tamalgarritzat» jo du «GeroaBaiko jarraitzaileek Baztango NaBai 2011ren izenaz harroki baliatzea gezu-

rrak botatzeko eta iritzi publikoa nahasteko maiatzeko hauteskundeetan aurkeztutako hauteskunde programaz eta hautagaitzaz arnagatuz». Hori dela eta, idatziaren egileei dei egin die «argi eta garbi erran dezaten nortzuk diren, zein proiektu politikotan dauden eta zein 'proiektu soziopolitiko' defendatzen duten». Iturrek Baztango NaBai 2011ko Aralarreko zinegotzia dela gogoratu du eta gisa berean, «bere jardura publikoan hauteskunde-kanpainan aurkeztutako programa defendatzen duela eta defendatuko duela» adierazi du.

BERROETA → ORTZIRALETIK IGANDERA

Argazki lehiaketa eta erakusketa eginen dira Berroetako kultur egunetan

Asteburu kulturalaren seigarren edizioa da

TTIPI-TTAPA

Hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu Berroetako Gure Ametsa Elkarteak asteburu honetarako, ortziraletik igandera.

ORTZIRALA, APIRILAK 20

- 17:00etan ipuinak sortzeko eta interpretatzeko tailerra Arantxa Gamioarekin.
- Ondotik txokolatada.
- 20:30ean afaria
- 21:30ean mus txapelketa. Sariak bi afari Beolan eta Zamail harategiko txuletak.

LARUNBATA, APIRILAK 21

- Argazki lehiaketa, erakusketa eta sari bana-keta.
- 10:30ean baratzeak, loreak, zuhaitzak... hizpide Jakoba Errekondorekin.
- 18:30ean *Okupazio baten historia*, Palestinari buruzko solasal-

dia Mikel Bezunartearen eskutik.

- 21:00etan txiste eta kantu afaria, Jalisko, Jon Bergaretxe, Pello Zabaltza eta Santxotena kantuz eta Jose Ramon Aldasoro txistetan. Afarirako txartelak salgai daude.

IGANDEA, APIRILAK 22

- 09:00etan Done Jakue bidearen etapa: Berroeta-Lantz.

Kultur ekitaldi hauek antolatzeko Udalaren, Baztandarren Biltzarra Elkartearen, Beolajatearen, Zamail harategiaren, Jauregia esnekiak-en eta Mena argazki-dendaren laguntza izan dute.

Kultur agenda

Apirilaren 25ean, asteazkena, *Erleen mundu liluragarria* izenburupean hitzaldia eskainiko du Koldo Urrutiak Azpilkuetan, 19:30ean.

Erratzun, berriz, bertsoaritzaren inguruko dokumentala ikusgai izanen da Kultur Elkartean, apirilaren 26an, 20:00etan.

Baztango dantza tailerrak ere aipatzekoak dira: astelehenetan Erratzun, asteartetan Arizkun eta Elizondoko lanbide eskolan, ortzegunetan Elizondoko Arizkunenean eta ortziraletan Arraiozen izaten baitira. Horrez gain, kantu zaharren tailerrak astelehenetan Erratzun, ortzegunetan Elizondoko eta ortzi-

raletan Baztandarren Biltzarra Elkartean egiten dira. Honen harira, erran, Udalak Baztanen eginen diren kultur ekintzen berri izateko, etxe guztietara apiril-maiatzeko agenda banatu duela.

AZOKAK

Baztan-Bidasoaldeko artisuek antolatutako azoken berri eman du

Bertz Partzuergo Turistikoak. Elizondoko Foru Plazan eginen dira, eta eguraldi txarra eginez gero, Merkatu Plazan. Apirilaren 7an egin zenaren ondotik, hilaren 28an bertze bat eginen da, baita ekainaren 30ean, abuztuaren 4an eta 25ean, urriaren 13an, azaroaren 3an eta abenduaren 8an ere.



ARGAZKIA: A. IRIARTE

Aniz eta Berroetakoak sagardotegian

Berroeta eta Anizko 37 lagun Hernaniko sagardotegi batean izan ziren apirilaren 7an eta giro ederrean ibili ziren.



ARGAZKIA: ELIZONDOKO INSTITUTUA

Aste kulturala Elizondoko institutuan

Apirilak 2, 3 eta 4an Elizondoko institutuan ospatu zuten aste kulturala izan zen eta Pitxi Egillorren bisita izan zuten. *Pirinioetatik Himalaiara* hitzaldian Everest izandako bere esperientzia kontatu zien ikasleak.

ANTXITONIA
Kulturaren eta Turismoaren Institutua

Berriola Iturre 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
berriola@antxitonina.com • www.antxitonina.com

BAZTAN

GIZARTEA → DEIALDIA

Aste honetan hasiko dira Udaleko gizarte langilea kontratatzeko probak

Lehiaketa-
oposizio bidez
gizarte langilea
kontratatuko du

etan idatzizko proba egingen dute eta 13:00etan ahozkoa.

Oposizioaldiko froga teorikoa apirilaren 25ean egingen da 09:00etan; praktikoa egun berean baina 11:00etan egingen da eta elkarrizketa personala, apirilaren 27an 09:00etatik aitzinera.

Aipatzekoa da, lehiaketa-
oposizioa gainditzen duten hautagaiekin lan poltsa sortuko dela etorkizunean ordezkapena bideratu ahal izateko. Gisa berean, gerora begira, gizarte arloko programek jarraipena badute, Nafarroako Gobernuak eta Udalak sinatutako hitzarmen arabera, eta Udalak gizarte langile baten beharra baldin badu, lan poltsa erabiliko litzateke gizarte langile horren lanpostua betetzeko.

TTIPI-TTAPA

Lehiaketa-
oposizio bidez, Udalarendako aritzeko gizarte langilea kontratatzeko asmoa du Udalak, euskaraz dakiena eta lanaldi osoan. Helburu horrekin zabaldu zuen hilabete hasieran deialdia eta astearte honetan, apirilak 17, akitzekoa zen plaza horretara aurkezteko epea.

Behin epea akituta, euskara maila adierazteko ziurtagiririk aurkezten ez duten hautagaiek euskara proba ortzegun honetan, apirilak 19, egingen dute, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko teknika-
riek bideratuta. 09:00-

GIZARTEA → ELIZONDON

Adineko pertsonekin sor daitezkeen egoera zaileen inguruan doako lantegia antolatu du Bidelagunek

TTIPI-TTAPA

Egoera zailen konponbidea adineko pertsonekin: kasu azterketak. Izenburu horixe du Bidelagun elkar-
teak antolatu duen ekimenak. Hiru orduko lantegia da, eta boluntarioei, adineko pertsonen zaintzaileei, zahar etxeetako langileei, etxez-
etxe-
ko langileei, Osasun Etxeko langileei eta familiei zuzendua dago.

Ikastaroa apirilaren 26an izanen da, Elizondoko Bidelagun elkartearen egoitzan, 17:00etatik 20:00etara. Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburua izanen dira hizlariak.

Interesatuak ortziral hau, apirilak 20, izanen dute izena emateko azken eguna. Horretarako 948 591327ra deitu behar dute edo *bidelagun@hotmail.com*-era idatzi. Dohainik da.

ETXEZ-ETXEKO FAMILIA LANGILEAK

Baina gizarte langileez aparte, etxez-
etxe-
ko zerbitzurako familia langileak kontratatzeko ere lan poltsa osatu nahi du Udalak. Eta interesatuak ortziral hau, apirilak 20, izanen dute aurkezteko epea. 14:00 baino lehen egin behar dute. Kasu honetan ere euskaraz jakitea ezinbertzekoa izanen da eta horren ziurtagiririk aurkezten ez duenak idatzizko eta ahozko frogak egin beharko ditu. Idatzizkoa apirilaren 23an egingen da, 09:00etan.

Lanpostuari buruzko ezagutza proba ere egingen da aitzinerago.

Alzheimerra hizpide solasaldian

Alzheimer Gaixotasuna Dutenen Familia-
koen Elkarteak hitzaldia eskainiko du apirilaren 23an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. 18:00etan hasiko da solasaldia.



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

TELP tailerra arrakastatsua

Euskara Batzordeak antolatuta, TELP tailerra egin zen martxo hondarrean. Tailerrean parte hartu zuten 15 kideek aski balorazio positiboa egin zuten ikusi eta ikasitakoaz, hizkuntza gutituak solastatzen dituztenen konplexu eta hizkuntza gatazkak nola bideratu erakutsi baitzuen Gemma Sangines psikologoak.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Aitor Bazterrika saritua

Baso-suteen aurkako taldearen urrezko intsignia jaso du Aitor Bazterrika guardak, sutearen kontra eta herritarrak sentsibilizatzeko egindako lanaren seinale.



OSPAKIZUNAK → APIRILEKO AZKEN IGANDEAN

Ekitaldiz betea dator apirilaren 29an eginen den Nafarroaren Eguna

Nafarroako konkistarekin lotuko da ospakizuna

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, apirilko hondarreko igandean ospatuko da Baigorri Nafarroaren Eguna, Nafarren arteko lotura indartzeko aurten 34. aldiz. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte bete dira eta horrekin lotu nahi izan dute apirilaren 29ko besta.

- 08:00etan askaria Baigorriko ikastolak eskainia.
- 11:00etan kabalkada: desfilea eta ikusgarriak plazan, txalaparta eta bertsulariak, Baigorri-Amikuze eta Iruztuneko ziganteak, gaiteroak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Herri osotik joandako jendetza elkartu ohi da Baigorri, Nafarroaren Egunean.

eta trikitilariak, Tuterako paloteadoak eta Baigorriko dantzariak, Karmeleren irrintzia eta Basaizearen hitza.

PENTZEAN

- 14:00etan ikastolen

bazkaria.
• Erramun Martikorena, Maitena Monaco eta bertsolariak.

HERRIKO PLAZAN

- 15:00-17:00: kirol animazioa Esaitekin.

- 17:00-18:30: dantza eta kantu ikusgarria: Amaren alabak eta Iruñeko Ortzadar eta Beasaingo dantza taldeak.
- 19:00-20:00: bidrio eta otsoa.
- 20:30-21:30: Obaneu-


ke taldearekin dantzaldia.

- 22:00-23:00: Laket taldearen kontzertua.

XOKOAN

- 16:30-17:30: Skatu taldearen kontzertua.
- 18:00-19:00: Egurra ta kitto taldearen kontzertua.
- 19:30-20:30: Txamps taldearekin kontzertua.
- 21:00-22:00: Triki-dantz taldearekin dantzaldia.
- 22:00-00:00: Kiki Bordatxo.
- Gauerditik goiti karaokea.

Horrez gain, egun osoan Uztarrizeko txaranga, bertsu txaranga, Ezpela, Kuxkuxtu, Euski eta Muttiko Alaiak... Denak bazterrak animatzen ariko dira.

 GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBEHERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJUI
DORNEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ZUGARRAMURDI

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Eskual titiriteroen zortzigarren topaketa ospatuko da asteburu honetan

Hamalau taldek parte hartuko dute ikuskizunetan

Koro eta Margari

Ondoko asteondar huntan ospatuko da gure herrian VIII. Eskual titiriteroen topaketa. Larunbatean eta igandean, apirilak 21 eta 22, denetara hamalau talde ikusteko aukera izanen da, denak urrik. Halere, ikuskizun guztietan kutxa bat paratuko da ekonomikoki lagundu nahi duenarentzat.

LARUNBATA, APirilak 21

- 11:00etan haurrendako tailerra eskolako plazan Taupadarekin.
- 12:00etan Sorginen Museoan, Zurrunka taldeak *Erraldoi bihotz gabea* eskainiko du.
- 13:00etan Taun-taun taldeak Akelarrenean *Txio txioka* antzezlan eskainiko du.

- 15:30ean Colectivo Humorekin, *Papiricuentos+Guille y la bruja* eskolako plazan edo karpan.
- 16:30ean Behi bis-en eskutik *Paperezko istorioak*, Sorginen Museoan.
- 17:30ean Panta Rheirekin, *Ttxintxilipurdi erregea* Akelarrenean haurrendako.
- 19:00etan Goloka taldearekin *Bertiztuak* kalejira herrian barna.
- 20:00etan Cobaya Teatro taldearekin, *Hay crisis en el cielo?*, Museoan.
- 21:00etan subasta sorpresa karpan.
- 21:30ean talo-jatea karpan Deustuko albokariekin.
- 23:00etan karpan El Tendereteren estreinaldi mundiala *Titere Ska* antzezlanarekin.
- 00:00etan Erre ke erre taldearekin, *Los Pilindrados* txontxongilo punk, karpan.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Hainbat ekitaldirekin osatu dute bi egunetako egitaraua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru hedabideen aldeko mus txapelketa

Hamar bikote aritu ziren Xaloa, Xorroxin eta TTIPI-TTAPAREN aldeko mus txapelketan. Atsalde pulit bat pasatzeaz gain, hedabide hauendako laguntza pittat bildu zen. Erran beharra dago txapelketan parte hartu ahal izan ez zuten batzuk ere dirua eman zutela. Txapelkunak Iñigo eta Kaiet izan ziren

IGANDEA, APirilak 22

- 11:00etan *Ipuin lapurra* ikuskizuna eskolako plazan edo karpan.
- 12:00etan *Adarkabar urdina* ikuskizuna Mu-

seoan.

- 13:00etan Azikarekin *Barne iluna* Akelarrenean.
- 14:00etan Inaki Matarekin *Barreras* pla-

zan. Aperitifa ere izanen da musikarekin.

- 15:00etan bazkaria eginen da elkarteak. Izena eta fidantza Marixanen eman behar da.



UDALA → LANAK

Zahar etxeko parkea denei irekitzeko lanak hasi ditu Herriko Kontseiluak

Lore eta zuhaitz gehiago landatuko dira eta jarlekuak paratu

Joana GUERENDIAIN

Herriko langileak hasi dira zahar etxeko parkearen harrizko paretaren kentzen. Parke hori ez zen gehiago erabilia eta beraz, xedea da gune hori denei irekitzea. Jadanik badira zuhaitz eta lore andana bat, eta gehiago landatuko dira, jarlekuak ere ezarriko dira, lekua atsegingarri izateko. Bertalde, aparkaleku bat ere eginga izanen da parkearen ondoan.

Dakizuen bezala Argaingo auzoaren handitzen ari dira eta Kontseilua lotak banatzen hasi da zortzi saratar familliei.

Joko Berri finala larunbatean

Larunbat honetan, apirilak 21, eta arratsaldeko 4etatik goiti Joko Berri finala iraganen da kiroldegian. Sarako Iazarra pilota elkarteak antolaturik, ostatu bat izanen da eta taloak ere bai jateko.

PALA TXAPELKETA

Pleka trinketearen pala

txapelketaren finalak apirilaren 27ko arratsanean izanen dira eta apirilaren 28an eguerditik goiti.

Berri toki

Hilabete honen has-tapenean Beri Toki egunkari loto dendak bere ateak hetsi ditu. Pantxika eta Sophiek 13 urtez atxiki dute denda, egunero ongi etorri ezin hobearekin eginez klienteei.

Hemendik goiti egunkaria eta lotoa Tabac Mama tabako bulgoan erosi beharko da. Denda hori 2008tik goiti ideki da, Gilbert eta Françoise Maestracci jaun-andereek atxikitzen dute eta hainbat gauza eta zerbitzu eskaintzen dituzte.

Sarako Idazleen Biltzarra

Ehunka lagun hurbildu ziren apirilaren 9an iragan zen 29. Idazleen Biltzarrerera. Gainera, inoiz baino liburu aurkezpen gehiago egin ziren eta guztira, 140 idazleren lana deskubritzeko aukera izan zen kiroldegian.

Aurtengo omen-duak, berriz, Pier Paul Berzaitz kantari zuberotarra eta Jakintza kulturalaren eta historian espezialitate Ziburuko elkartearen izan ziren.



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Basurdeak finalerdietan

Gure Basurdeak finalerdietara iritsi dira. Apirilaren 8an Pomarezeko taldearen kontra galdu egin zuten 10-18, baina itzultze matxa gelditzen zaie, eta beraz, itxaropena ere gelditzen da. Erreserbakoak final-laurdenetan dira eta hauek irabazi egin dute, 13-10, Saint Pierre du Monteko taldearen kontra. Segi aitzinera Basurdeak!



ARGAZKIAK: JEAN POUYET ETA TOPATU.INFO

Gazte Martxa jendetsua

Gazte Martxaren karietarat, 2.000 bat gazte hurbildu ziren apirilaren 6tik landa Sarara. Nahiz eta denbora ez lagun izan, herria biziki animatu zuten kontzertu, dantza, zigante eta joaldunekin. Biharamunean, goizean goiz jeiki ziren musikarekin eta Lesakarantz abiatu ziren ikurrina frangorekin.



SENPERE

LITERATURA → MAIATZ ARGIALETXEAREKIN

Inifife liburua plazaratu du Peio Jorajuria berriketariak, bere hirugarren idazlana

Duela bi urte Marokoko mendietarat egindako bidaia bildu du liburuan

Franck DOLOSOR

Maiatz argialetxeak berrikuntzak agertu ditu aurten ere Sarako Idazleen Biltzarrean, hauen artean, *Inifife* Peio Jorajuria senperraren hirugarren liburua. Bidarrain finkatua den kazetariarekin mintzatu da TTIPI TTAPA.

• **TTIPI-TTAPA: Irudia eta bat batekotasunaren garaian zergatik idatzi?**

Peio Jorajuria: Idatzia garrantzi handia du, nik segurik maite dut ainitz idaztea. Funtsean nire ofizioa da. Herria astekarian idazle buru gisa badut aste guziz zer nahi idazteko. Gaiak badira, erreportajeak, hortan ari naiz alde bat, maite dut euskaraz idaztea, eta ahal dudalarik lanetik aparte idazten dut bainan hor niretzat. Idatzia egoten da, ez da irratian bezala mintzoa solasa airatzen baita.

• **TT: Aktualitatea eta literatura uztartzea ari-keta bat da?**

PJ: Idaztea maite baitut ez zaut kostatzen. Gero, egia da denbora hartzen duela eta beti hor behar dela. Akigarrari da batzuetan eta sentitzen dugu beharra urruntzeko eta pausatzeko. Halere, gustatzen



UTZITAKO ARGAZKIAK

Peio Jorajuria eta bertze sei lagun Maroko aldean ibili ziren duela bi urte.

zait gustagarria baita. Eguneroko aktualitatean, beroan bero pasatzen dena aipatu behar da, ahatik poesia edo bertze lan bat zurea delarik zure baitako sentimenduak ematen dituzu barnean. Landuagoa den zerbait da.

• **TT: Bidarrai eta Uzkinazo Luma liburuen ondotik, orain *Inifife*...**

PJ: Duela bi urte, zazpi lagun Marokoko mendietarat, Goi Atlatserat joan ginen hamar egun pasatzerat. 1 500-3 000 metro arteko mazelatan gida batekin eta mandozainekin ibili ginen. Gurutzatu genituen hango jendeak eta esperi-

AKTUALITATEA-LITERATURA
«Eguneroko aktualitatean, beroan bero pasatzen dena aipatu behar da, ahatik poesia edo bertze lan bat zurea delarik zure baitako sentimenduak ematen dituzu barnean»

Peio JORAJURIA
Berriketaria eta idazlea

entzia xoragarria izan zen. Nik ez nuen ezagutzen, zinez mundu bat arrotza zen niretzat eta handik itzulita enbeia izan dut ikusi dutana partikatzea hemengo

hortaz parte harraraztea molde errexean kondatuz.

• **TT: eta *Inifife* zer ote da?**

PJ: Mendi batean arroila baten jauste zuta biziki gaixtoa da. Ahal bezala jautsi ginen. Pasabidearen izena da *Inifife*, tira-buxoin baten moldean da behar da jakin hango artzainak beren ardi eta ahuntzekin pasabide hortatik pasatzen direla. Harri-garri da, ez da asmatzen ahal nola pasatzen ahal diren. Sinistea ere zaila da. Liburuari doinu politeko izena eman diot. Ez nuen batere ezagutzen, zinez herrialde arrotza zautan eta ikusi dut duela 60 urte hemen zen bezala bizi direla. Ez da traktorik edo tresnarik eta eskuz egiten dute dena. Urik ez dute etxeetan, beraz, uraren bila joaten dira erreketarat eta xuriketarak han egiten dituzte. Halere, mementuren berean bitxi da antena parabolikoak direla-koz nun nahi.

Inguneko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaituz **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euzkoan 1 euro 20€
- Europa 3€
- Baxeri, Urteak eta Maresia 2€
- Amerika eta Australi 2,4€
- Ipar Euzkoan 1 euro 30€
- Letzia 1€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net



SORTZEAK

Iraia Martin Argain, Nartartekoa, martxoaren 24an.
Logan Prin Juanotena, Legasakoa, martxoaren 24an.
Asier Telletxea Rekarte, Zubietakoa, martxoaren 26an.
Beñat Elizondo Ariztegi, Iturengoa, martxoaren 22an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Santiago Alzugarai Igoa eta **Miren Itsaso Irigoien Etxebeste**, Lesakakoa eta Igantzakoa, martxoaren 24an Igantzin.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Asensio Arregi Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 27an, 54 urte.
Juana Anso Imirizaldo, Oizkoa, martxoaren 28an, 86 urte.
Jose Maria Ziaurriz Vicente, Elizondokoa, apirilaren 1ean, 87 urte.
Jose Etulain Irigoien, Erratzukoa, apirilaren 1ean, 70 urte.
Martina Garmendia Chacon, Leitzakoa, apirilaren 2an, 58 urte.
Fidel Altzugarai Alztuguren, Berakoa, apirilaren 6an, 51 urte.
Maria Cruz Kerejeta Iramuno, Elizondokoa, apirilaren 7an, 62 urte.
Juana Maria Gaztanbide Bidart, Le-karozkoa, apirilaren 10ean, 66 urte.
Manuela Indart Taborda, Arizkungoa, apirilaren 10ean, 90 urte.
Imanol Mitxelena Imaz, Zugarramurdikoa, martxoaren 29an, 80 urte.



**Jose Mª
BALEZTENA MONACO**
Leitza, 2009ko apirilaren 29an
III. URTEURRENA

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaintetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

ISABEL EMAZTEA, OLAIA ETA EGOITZ SEME-ALABAK, AMA, ANAIA-ARREBAK ETA ILOBAK



**Martin
BELARRA AROZAMENA**
2011ko apirilaren 21ean hil zen
I. URTEURRENA

Ostatu bazterretan jendeak gustora barrez alaitsu jartzeko erretasun horrekin gogoratu nahi zaitugu. Familikoak eta lagunak hutsune handia dugu gure Martintxo zenduzenetik urtea igaro zaigu.

(Doinua: Loreak udan intza bezala)
ZURE FAMILIA



Mª Angeles Ganboa Mitxelorena
Beran, 2010eko apirilaren 25ean
Carmen Alzuguren Agirre
Beran, 2011ko apirilaren 3an

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarekin, eta oroitzapen ahaztez in horiek beti geldituko dira gurekin.

ZUEN FAMILIA

Beraien urteurreneko meza apirilaren 22an eginen da, Berako Elizan, 12:00etan.

TXIRRINDULARITZA → TRANSPORTES BIDASOA MASTER TXIRRINDULARITZA TALDEA

Beterano mailan aritzen direnen txirrindularitza taldea aurkeztu dute

Aurten hasi du ibilbidea 9 txirrindulariren talde berriak

TIPI-TTAPA

Master edo betaranoen mailan aritzen diren txirrindulariekin, Transportes Bidasoa Master Txirrindularitza Taldea sortu dute aurten, senior, master 30, master 40 eta master 60 mailetan aritzen direnekin, hain zuzen. Bederatzi txirrindularik osatzen dute taldea: Luziano Mitxelena (Lesaka, master 60); Joxe Anjel Mitxelena (Lesaka, master 40); Iñaki Villoria (Iruñea, master 40); Ricardo Martínez (Funes, master 30); Ibon Urriaga (Betelu, master 30); Jaber Urriaga (Betelu, master 30); Mikel Arburua



Transportes Bidasoa taldeko txirrindulariak.

(Igantzi, master 30); Xabier Aranguren (Igantzi, master 30); Ion Zeberio (Legazpi, senior). Master mailako lasterketak, 80-110 kilometro ingurukoak izaten dira, adina araberak kilometro gehiago edo guttiago.

Taldea aurten hasi da lanean eta maila ona ematen ari da: Tafallan zein Gorraitzen bigarren eta hirugarren postu bana lortu zuten eta Tafallan taldeka lehenbizi-koak izan ziren. Bizkaiko Itzulian zazpigarren pos-

ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

tua ere lortu zuten eta Nafarroako Kopan bi lidertza sendo mantendu dituzte, master 40 eta 60 mailetan. Aitzinera begira, master mailako probak gero eta ugariagoak direnez, Euskal Herrian, Aragoian, Kantabrian eta

Gaztela Leonen antolatutako egun barreko lasterketetan parte hartzeko asmoa dute. Dena den, probarik garrantzitsuenak Nafarroako Kopa, Itzulia eta Txapelketa eta Euskal Herriko Txapelketa dira eurentzat.

Taldearen aurkezpena, berriz, martxoaren 31n egin zuten. Igantzin arropa berriei argazki batzuk ateratzeko ondotik, Berara joan ziren Transportes Bidasoa-ko egoitzara, han ere argazki batzuk ateratzeko. Gero, Beratik atera eta Baztan aldean barna 110 kilometroko ibilbidea egin zuten eta Igantziko Biltokin bazkalduz borobildu zuten goiza. Taldearen babesle diren Transportes Bidasoa eta Bodegas Iñurrietako ordezkariekin eta Biltokiko kideekin bazkaldu zuten.

HARRI-ALTXATZEA → ETXAURIKO HARRI BALDARRA

Jose txo Urrutia leitzarrak irabazi du Etxauriko Harria Txapelketa

Bederatzi jasoaldiekin bere marka berdindu du

TIPI-TTAPA | LEITZA

2007an egindako bere marka berdintzearekin batera, Etxauriko Harria Txapelketa irabazi du Jose txo Urrutia leitzarrak. Alberto Lakos-

taren oroimenez egiten den proba hau, apirilaren 1ean jokatu zen Etxaurin eta leitzarra izan zen guztien artean erregularrena. Bederatzi jasoaldi egin zituen 136,5 kiloko harri baldarrarekin, forma alde-rik ere irregularra eta heldulekurik gabea denarekin. Joan den urtean baino lau jasoaldi gehiago egin zizkion harriari.

Gainerako parte hartzaileek ez zuten asmatu harriarekin eta egin zituzten jasoaldi batzuk epaileak ez zituen ontzat hartu.

Urrutiaren ondotik, Jexux Mari Iruetagoienak (*Izeta III.a*) sailkatu zen, zazpi jasoaldi egin da. Hodei Iruetagoienak (*Izeta IV.a*) bortz jasoaldi egin zituen eta Urtzi Telleriak bi.



ARGAZKIA: OSKAR BARBER

Jose txo Urrutia Etxauriko harri baldarrarekin.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO JOLASAK

Basaburuko haurrek txapela lortu dute proba konbinatueta

Bera eta Igantziko taldeak ere finalean izan dira

TTIPI-TTAPA

Aurten ere ederki moldatu dira eskualdeko gaztetxoak Nafarroako Herri Kirol Jolasetan. Jokoan zeuden bortz txapeletatik, bat ekarri dute Basaburuak eta bigarren, hirugarren eta laugarren postuak ere eskuratu dituzte. Saillkapen orokorra apirilaren 1ean Igantzin jokatutako azken jardunaldian erabaki zen.

Kimuen mailan, Baztango Basaburuak eta Igantziko Abelu eta Unanu taldeek parte hartu dute eta horien artean, Basaburuak eta Abeluk lortu zuten hilabete hasieran Igantzin jokatu zen finalerako txartela. Andra Mari (Etxarri Aranz) eta Sanduzelairen (Iruña) gibeletik, Basaburuak eta Abelu saillkatu ziren, hirugarren eta laugarren postuetan, hurrenez hurren.

Haurren kategorian, proba konbinatueta Basaburuak lortu zuten lehendabiziko postua, eta sokatiran bigarren saillkatu zen.

Kadeteen mailan, berriaz, Berako taldea bigarren izan zen eta hirugarren Basaburuak. Sokatiran, aldiz, laugarren postuan gelditu zen Basaburuak, eta Berako taldeak, puntu erdiagatik, ez zuen finalerako txartelik eskuratu.



ARGAZKIA: LEGARRA

Basaburuko gaztetxoak entrenatzailearekin, dominak soinean dituztela.



ARGAZKIA: LEGARRA

Berako gaztetxoak prestatzaileekin, dominak soinean dituztela.



ARGAZKIA: LEGARRA

Igantzikoko Abelu taldekoak laugarren postuan saillkatu dira.

SOKATIRA

Lauko Sokatira Txapelketan izena emateko epea bukatzean

TTIPI-TTAPA

Ortzegun honetan, apirilak 19, bukatuko da Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketan izena emateko epea. Interesatuak Nafarroako Herri Kirol Federaziora deitu (948 450900) edo idatzi behar dute (info@herrikirolaknafarroa.org). Lau kategoriatan ariko dira lehia. Gizonezkoak 320 eta 300 kiloko mailatan ariko dira eta bina jardunaldi jokatu dituzte. Kadeteak 290 kilokoan ariko dira eta lau jardunaldi egingen dituzte eta emakumezkoak 260 kilokoan ariko dira eta hiru jardunaldi egingen dituzte.

EGUTEGIA

Txapelketa maiatzaren 5ean hasiko da eta orduan jokatu dira gizonezkoen 320 kilokoan eta kadeteen 290 kilokoan lehenbiziko jardunaldiak. Maiatzaren 13an 320 kilokoan eta kadeteen bigarren eta emakumezkoen lehenbiziko jardunaldiak jokatu dira. Maiatzaren 19an gizonezkoen 300 kilokoan lehenbiziko jardunaldia, emakumezkoen bigarrena eta kadeteen hirugarrena jokatu dira. Maiatzaren 27an, azkenik, gizonezkoen 300 kilokoan bigarren jardunaldia, emakumezkoen hirugarrena eta kadeteen laugarrena jokatu dira.

apirilak 20-maiatzak 3

Informazioa bidaltzeko: info@titi.net edo 948 63 54 58

Topaketak



ZUGARRAMURDI | 2012.04.21-22

Euskal Herriko Titiriteroen Topaketa zortzigarrenez

Estefa eta Mikelen omenez egiten den Euskal Herriko txotxongiloen topaketak zortzigarren edizioa beteko du. 14 talderen ikuskizunak bi egunez.

Ospakizunak



ZUBIETA | 2012.04.21

Bertako Haziaren jaia hirugarren aldiz ospatuko da

Nafarroako Hazi Sareak lagunduta goizez bakarrik izanen da, hazien trukea eta solasaldiak eginez. Bazkarian baba eta babarrun dastaketa eginen da.

Kontzertuak



ELIZONDO | 2012.04.28

Benito Lertxundiren kontzertua frontoian

Oroimenaren oraina diska berria aurkeztuz kontzertua eskainiko du Orioko abeslari handiak Elizondoko frontoian, 22:00etatik aitzinera.

Azokak

ELIZONDO

Artisauen lanak**Apirilaren 28an**

Baztan-Bidasoaldeko artisauen lanen azoka Foru Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Bertziko Partzuergo Turistikoak antolatua.

Lehiaketak

BERA

Bestetako programaren azal lehiaketa

Apirilaren 27an bukatuko da Sanesteban bestetako egitarauaren azal lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Erakusketak

BERTIZ

Alatz Lopezen lanen erakusketa

Apirilaren 1etik maiatzaren 1era *Artea erraminta bezala (El Arte como herramienta)* Alatz Lopezen artelaren erakusketa ikusgai Bertizen.

Ospakizunak

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 29an ospatuko da. Xehetasunak 35. orrian.

BERROETA

Kultur Eguna

Apirilaren 20tik 22ra ospatuko dira. Xehetasunak 33. orrian.

ZUBIETA

Bertako Haziaren Jaia

Apirilaren 21ean ospatuko da. Xehetasunak 20. orrian.

ZUGARRAMURDI

Euskal Titiriteroen VIII. Topaketak

Apirilaren 21 eta 22an ospatuko da. Bi egunetan 14 talde eta hainbat ikuskizun. Xehetasunak 36. orrian.

Solasaldiak

AZPILKUETA

Erleen munduaz

Apirilaren 25ean *Erleen mundu liluragarria* izenburupean hitzaldia eskainiko du Koldo Urrutiak 19:30ean.

Kontzertuak

ELIZONDO

Ingo al deu? Lur-en

Apirilaren 21ean *Ingo al deu?* taldeak emanaldia eskainiko du Lur aretoan 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

Benito Lertxundi pilotalekuan

Apirilaren 28an kontzertua eskainiko du Benito Lertxundik 22:00etan Elizondoko frontoian. Sarrerak 18 euro aurretik eta 20 euro egun berean takillan.

Jardunaldiak

BORTZIRIAK

Hautzaroko ezintasunari buruz

Apirilaren 23an instituzioen mahai-ingurua eginen da Lesakako erabilera anitzeko are-

toan, 17:30ean.

Apirilaren 25en elkar-teen mahai-ingurua eginen da Berako Beralandetan, 17:30ean. Ondoren afaria.

Ikastaroak

BERA

Baratzegintza ekologikoari buruz

Apirilaren 21 eta 28an eta maiatzaren 5ean eginen da baratze ekologikoaren inguruan ikastaro teoriko-praktikoa, Berako Udalak antolatuta.

MALERREKA-BERTIZARANA

Aintziña aisialdi taldearen logotipoa

Apirilaren 27an bukatuko da aisialdi taldearendako logotipo lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Ikuskizunak

BERA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Apirilaren 21ean *Zazpikoloroa* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Eztegara pilotalekuan 18:00etan, Arantzako Pelle Tiki haur eskolaren alde.

LESAKA

Tantirumairu folklore taldearen saioa

Apirilaren 21ean 3:15 zail da konprenitzen dantza emanaldia eskainiko du Tantirumairu euskal folklore taldeak 20:30ean.

Zinema

ERRATZU

Bertsolaritzari buruzko dokumentala

Apirilaren 26an bertsolaritzari buruzko do-

PROPOSAMENA

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna apirilaren 29an

Apirilaren hondarreko igandean ospatuko da Baigorri Nafarroaren Eguna, Nafarren arteko lotura indartzeko aurten 34. aldiz. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte bete dira eta horrekin lotu nahi izan dute apirilaren 29ko besta. Pentzean, herriko plazan nahiz xokoan hainbat ekitaldi izanen dira, baita aitzinako asteetako Kulturaldian ere.



kumentala ikusgai izanen da Kultur Elkartearen 20:00etan.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Apirilaren 22an Telleria-Barretako erreka-Katalinkonea-Xarahaundi-Xoporro-Legarreko Iepoa-Arranomendi-Bizkerluze-Gorospil-Bankeroren larreak-Telleria ibilaldia eginen dute Baztango Mendigoizaleak. (08:00)

Apirilaren 29an Nafarroaren Egunera joanen dira Baztango Mendigoizaleak: Erratzu-Etxehorie-Meaka-Otso-meaka-Elorrixuri-Ubedo-Buztanzelai-Baigorri. (08:00).

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Apirilaren 29an Aiako Harrira igoko dira Ulibeltzak mendi taldekoak (07:30).

ZUGARRAMURDI

Atxuria Mendi Taldea

Apirilaren 22an Erratzurat ateraldia eginen du Atxuria taldeak.

BORTZIRIAK

Frainera presoan eskubideen alde

Apirilaren 22an Bortzrietako herri guztietatik Frainera mendi ibilaldia eginen da. Xehetasunak 11. orrian.

BERA

Ibilaldi gidatuan bunkerren barna

Apirilaren 22 eta 29an eginen dira. Ibardingo Gorria Bentatik (10:00). Izen ematea 012an.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Hegan egiten ez zekien txantxangorria


TRINI MIKELARENA

Araña, 2012

Txantxangorri baten istorioa duzu honakoa, amaren aholkuei behar zuenean arreta ez eskaintzeagatik hainbat gorabeherari bakarrik erantzun behar izan ziena, baina, lagun trikuaren laguntzari esker, haietatik onik atera zena.

Liburuaren gibelego aldean ageri denez, honako irakaspen edo erakutsi hauek lantzen dira ipuin honetan: Arreta eskaini behar zaio maite zaituzten pertsonak irakasten dizutenari. Familiatik kanpora lagunek altxatzen dizute bihotza, laguntza handia ematen dizute. Norberaren senaz fio izan behar da, finean sena baita ezin ikas daitezkeen larrialdietatik onik irteten lagunduko dizuna. Liburua idatzi ez ezik, bertan ageri diren margolanak ere sortzez beratarra den Trinik marraztu ditu.

Musika



Collage

GOVERNORS

Mauka, 2012

Collagea elementu anitzak batasuna duen osotasunean batzen dituen teknika artistikoa da. Arrasateko taldearen hirugarren lanak aunitz dauka horretatik. Ibilbide luze eta emankorra duen J.Sang-k (Fjord, Ekon, Brutal Melody...) pieza, joera, emozio, bidelagun eta esperimento aunitz bildu ditu diskoan. Governors taldearen bereizgarri handienetakoa da doinu indartsu eta itsaskorren arteko eremu ia ezinezkoari eustea, eta lan honetan muturrak oraindik gehiago urruntzen badira ere, ez dute iparririk galtzen. Ezagun da J.Sangek melodia borobil eta hunkigarriak lantzeko daukan abilezia; eta ahotsarekin orain arteko erregistro garaienetara heldu da. Governorsek alderdi aunitz ditu eta puntako idazleen eskutik (Ametz Arzallus, Eider Zumalde, Fredi Paia, Mikel Etxaburu...) hitz zirrarragarriak biltzen dituen lan honetan gehienak azaleratu dituzte.

Internet



TTIPI-TTAPako albistek bideoan ere ikusgai

TTIPI.NET/MULTIMEDIA

TTIPI-TTAParen webgunea berrikuntza garrantzitsu batekin dator, izan ere, hemendik aitzinera, zenbait albisterei eta erreportajeen bideoak ikusteko aukera ere eskaintzen du *Multimedia* atalean. Eskuineko zutabean, Urtebetetzearen atalaren azpian, zuzenean zintzilikatu den azken bideoa ikusteko aukera izanen da. Horretaz gain, leihoguztiaz nahiz eskuineko zutabean ageri den *Multimedia* loturan klikatuta, zintzilikatuta dauden bideo guztiak ikusteko aukera dago. Bideoak Youtuben zuzenean ikusteko aukera ere eskaintzen du, eskuin zutabeko azken leihotxoan klikatuta. Azken berriei batera, TTIPI-TTAPA Telebistaren bideo historikoak ere sareratzten hasi dira, hala nola, *Euskal Artzainak Ameriketara* elkarriketa saila, *Kontu kontari* atalekoak...

Nire aukera



Nerea ITURRIRIA
Xaloa Telebistako kamera

«Nire burua hobeki ezagutzeko ikastaro interesgarria egiten ari naiz»

Lana goizez bakarrik egiten du Iturriria, «hortaz atsaldeak libre ditut baina haurrekin ibiltzen naiz gora eta behera, parkean batez ere ona egiten badu... asti librea gutti». Sukaldatzea gustatzen zaio, «erlaxatu egiten nau», etxeko aferak, berriz, «oso pisutsuak» egiten zaizkio. Haurrak tikiaki ditu oraindik eta «gure beharra dute, hortaz momentuz nahiko baztertuak ditut nire afizioak, ibilaldi politen bat, zinea, antzerkia, eskulanak...». 40 urteen *krisia* iritsi zaionez «nire burua hobe ezagutzeko ikastaro interesgarri bat egiten ari naiz, biizien erdialde hontan non naogen eta norat nahi duten gan aztertuz». Bikoteak igandetan bakarrik libratzen duenez *domingo* izatea gustatzen zaio, «Euskal Herriko xoko ezberdinak ezagutu». Oporretara aspaldi ez da gaten, «ea aurtent!», dio itxaropenez. Aunitz gustatzen zaio bidaiatzea. Itsasoa duen edonora joanen litzateke gustora, «bidaia kulturalak geroxagoko utzi beharko ditugu...».

ETXEBIZITZAK

salgai

LESAKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

ELIZONDO. Maurizio Berekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. eguzkitsua, 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igogailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

BERA. Eztegaran pisua salgai. 4 logela, sukalde-jantokia, 2 bainugela, ganbara eta kanpoko lorategia. Pisuak 137 m² ditu eta ganbarak 30 m². ☎688 695812.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Maurizio eta Felix enparantzan Babes Ofizialeko etxebizitza salgai edo errentan emateko. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, trastelekua eta garaje plaza-ekin. Eguzkitsua eta mobleztatua. Salmentako prezioa 21.500.000 pzt. (129.217 euro) eta alokairurako prezioa 350 euro. ☎616 510624 / 948 580683.

NARBARTE. 87m²ko pisua salgai, berritua, 30^oko garajea eta 100^oko ba-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ratzearekin. Eskaintza erakargarria! 148.000 euro. ☎630 402039.

ELIZONDO. Maurizio Berekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igogailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

LESAKA. Herri erdian 66m²ko pisua salgai, 2. solairuan. 2 trasteleku, garajea eta igogailua. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

ETXEBIZITZAK

erosi

LESAKA. Pisua edo etxea erosi nahi da. Guttienez 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela/k izan beharko litzuke. Eskaintzak egiteko prest. ☎699 116595.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

BERA. Iturlandeta 3, 4A pisua errentan emateko. ☎617 565487/ 697 243644.

DONEZTEBE. 92m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde handiak. Gela guztiek kanpora ematen dute, eguzkitsua. Mobleztatua. Berogailua. ☎699 798207.

LESAKA. Duplexa errentan emateko. Logela bat, bainugela, sukaldea, egongela. Zaharberritutako etxea. Inguru lasaian eta hagitz politean. 2 lagunentzako aproposa. ☎658 943702.

ELIZONDO. Pisu zentrikoa errentan emateko. Igogailuarekin eta mobleztatua. ☎600 618485.

BERA. Estreintatu gabe-

ko pisua errentan emateko. 2 logela, komuna dutzarekin, egongela, sukaldea eta horiez gain, 20 m²ko terraza. Dena altzari berrieekin. Herri sarreran dago, gasolindegitik 100 metrotara eta Behobiatik 10 minutura. ☎650 603871.

DONEZTEBE. Zazpigerutze auzoan mobleztatutako pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Igogailuarekin. ☎660 674328.

DONEZTEBE. Osasun Zentroaren ondoan, 110 m²ko pisu berria errentan emateko. Mobleztatua eta igogailuarekin. ☎679 568030.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

DONEZTEBE. Neska batek pisua errentan hartu nahi du. Gehienez 300 euro arte ordaintzeko prest dago. ☎617 902072.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

ARIZKUN/BOZATE. 2.000m²ko lur rustikoa salgai. Prezio interesgarria. ☎649 939074.

LANA

eskariak

BERA. Emakume euskaldunak interna moduan lan egingen luke. ☎948 631048 / 692 715608.

Mutil euskaldunak zerbitzari moduan lan egingen luke, esperientzia handi-arekin. ☎630 946241.

Zonaldeko emakumeak zainketa paliatiboak egingen litzuke. ☎696 104849.

DONEZTEBEN edo INGURUAN emakume euskaldunak ordu batzuek lan egingen luke, garbiketaren edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

Mutil bat baserriko lanetan eta bertze edozein lanetan aritzeko prest dago. Inseminazio kontutan aditua, eta animaliekin ohitua. Bertze almatzen edota fabrika batean ere lan egingen luke. ☎661 956139 / 655 034364.

LEITZA. Emakume batek adinekoak zaintzen lan

BASERRIADATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(martxoaren 23tik 30era bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 48,00 € (=)

Zerri gizena
1,294 € kilo. (=)

Zerramak:
0,570€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,40 (=)

1.koa 4,10 (=)

2.koa 3,86 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,46 (=)

1.koa 4,18 (=)

2.koa 4,08 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,91/3,01

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,30

8-10 kilokoak: 4,70/4,90

eginen luke, orduka. ☎661 172065.

Mutil euskalduna edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎606 755274.

29 urteko **emakumeak** adinekoak zaintzen edo garbiketan lan eginen luke. 24 ordutan aritzeko prest. ☎639 737379.

LANA

eskaintzak

Ile-apaindegi baterako esperientzia duen pertsona bat behar da. ☎636 827980.

ZUGARRAMURDI-SARRA. Jatetxe batean uztaillean eta agorrilean eta eguerdi eta arratsetan zerbitzari lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Esperientziaduna eta euskalduna. ☎686 561525 / (0033) 559 542131.

BERA. Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira bazkariari emateko, asteburuetan bakarrik. ☎650 981950 / 948 631658.

URDAZUBI. Jatetxe batean eguerdikoko zerbitzuan lan egiteko pertsona behar da, igande eta jaiegunetan. ☎948 599222.

IBARDIN. Beola bentan dendan saltzaile lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Frantsesa jakitea ezinbertzekoa. ☎948 630709.

ZERBITZUAK
zurginak

ARANTZA
Zurgindegia
Kiloe gualtako
murgin lanak
Eskatze arrakastatsua
kargamendura gabe
Gara Bepi Zurgindegia
948 272011 (orain)
Gara Bepi
Gara Bepi

ZERBITZUAK
denetarik

PSIKOANALISTA
Kontuak eta ezazu arazo
☎ 948 272011 (orain)
☎ 948 580975
Gara Bepi 42-2 D - ELIZKUNDO

ANIMALIAK
erosi

Larruak biltzen dira (bilstots, ardi, aretze, ...). ☎678 896909.

Ardi ilea erosi eta biltzen da etxez-etxe. ☎656 774728.

ANIMALIAK
salgai

3 urteko **zaldia** salgai. ☎686 812286.



ANIMALIAK
oparitzeko

Ponni ama eta **kume jaioberrria** oparitzeko. ☎607 540152.

ANIMALIAK
denetarik

4 urteko **ahari** mutur zuria eta adarrak gabea, **ardi** baten truke emanen nuke. ☎620 036553.

MOTORRAK
salgai

Suzuki vitara autoa salgai, 5 atekoa, diesela eta ongi zaindua. 2004. urtekoa. 84.000 kilometro-ekin. 7.500 euro negoziagarriak. ☎670251632.



Opel astra G 1.6 autoa salgai, 8 V, gasolina, egoera onean. 140.000 kilometro. ☎615 737826.



Renault Kangoo autoa salgai. 9 urte, txuria. Gibebeko kristalak beltzez tintatuak. 150.000 kilometro. Korreak oraintxe aldatuak. Egoera onean. 2.500 euro. ☎675 603527.

Nissan Patrola salgai, prezio negoziagarria. ☎664 564572.



DENETARIK

salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Paga eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / 699 461394.

Pago egurra lotetan salgai. ☎659 867287 / 699 461394.

Ehizako eskopeta paraleloa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. ☎619 283278.

Argia egiteko motorra salgai, Honda markakoa. 2 entxuferekin, gasolinakoa. Arrunt gutti erabilia. ☎685 950243 / 697 528657.

KHUN GMD 400 belarra moztekoa salgai, lau disko dituen. Gutti erabilia eta egoera arras onean. ☎616 898065 / 605 736262.

DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan daude ikusgai, nahiz eta partkularrak izan. ☎646 799828.

DENETARIK

galdu/aurkituak

LESAKA. Bereau hotel-lean giltza multzo bat agertu da. 7 giltza dira, horietako bat ttikia. ☎948 637570.

AVIA **DONEZTEBEKO**
GASOLINDEGIA
Zure kotxea garbitu!
Depositoa beteta kotxea garbitzeko fitxa 1€
www.clubavia.es
Lortza E. 49 • DONEZTEBE | 948 451 070 | www...

GANIX
7 948 63 54 58

Egin zaitez **ttipi-ttapa**ren harpidedun
(0034) 948 63 54 58

apirilako zk. saritua **9.562**
Bi lagunendako bazkaria Berako Zalain jatetxean
Sarmak hilaren 30a baino lehen deitu behar du: Bortuzietako Iltzi Hondakinak Mankomunitatea
948 63 52 54

hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa
www.ttipi.net en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan interneten **8** EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



OIHAN SARRATEA
ETXEKOLONEAK 6 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik, berexiki Aimar eta Nayaren partetik.



Goizuetako **OIER MIRANDAK** 9 urte bete ditu apirilaren 12an. Muxu haundi-haundi bat Iker, atta eta amaren partetik. Aupa Umore Ona!



Doneztebeko **BEÑAT TELLETXEA** **GOGORZAK** urte-txo bat bete du apirilaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat aitaxo eta amaxoren partetik.



Leitzako **YUE ZABALETA GARTZIAK** urtea bete du apirilaren 16an. Zorionak eta txokomarrubizko muxu haundi bat gure etxeko pottokari aitaxo eta amaxoren partetik, baina berexiki Unaxen partetik.




Berako **GARAZI ARBURUA** **ZELAIETAK** urteak bete ditu apirilaren 2an. Zorionak polita! Lau urte bete dituzun egunean, muxu haundi bat amatto, attatto eta familia guztiaren partetik.



Zorionak Berako **NEREA** eta **ANE** **IPARRAGIRRE** **IGOARI** apirilaren 15ean eta 16an urteak bete dituztelako. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Josu, aita eta amaren partetik.



Sunbillako **MARIA LUISA GANBOAK** urteak bete ditu apirilaren 13an. Zorionak amatxi etxekoan partetik, berexiki Aimar eta Aneren partetik. Prestatu kartera bazkari eder bat egiteko. Muxu potoloa denon partetik.



Elko, Nevadako **KYLE OWSLEY** **IGOAK** 10 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat Lesakako familiaren partetik.



OLATI IRIARTE ITURZAETAK apirilaren 13an urteak bete zituen. Auniz urtez eta muxu potoloa familia guztiaren partetik. Eskermile auniz hain merendu goxoa prestatzeagatik!



GOIURI ZABALETA RODRIGUEZ leitzarrak 3 urte bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak printzesa! Muxu handi bat eta besarkada bat aitaxo, amaxo eta Oierren partetik. Maite zaitugu!



Apirilaren 16an 8 urte bete dituelako, zorionak beroenak guretzat iturendarra den **NAHIA** tikiarentzat. Muxu potolo bat berexiki, Laiene, Ixiar, Peio tikiia eta amaxiren partetik. Berendu goxoa prestatu!



ANDER PAGOLOA LOPEZ beratarrak 3 urte bete ditu apirilaren 16an. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat!



XUBAN TABERNA MUTUBERRRIA aranz-tarrak apirilaren 10ean 6 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat!



Irungo **MIRARI** eta **AIMAR** **ETXEBERRIA** **ZUBIALDEK** apirilaren 4an eta 27an 10 eta 6 urte beteko dituzte. Egun on-ona pasatzea espero dugu eta berendu goxo-goxoa prestatzea ere bai! Mila kilo zorion eta muxu handi bana Xune, Unai, Jone eta Landerren partetik, baita osaba-izeba eta attona-amaxiren partetik ere!




Beintzako **OLAIA** **MINDEGIA** **TABERNAK** 2 urte bete ditu apirilaren 7an. Zorionak printzetsita Donamariako familiaren partetik. Muxu potolo bat.



Donamariako **ANA M** **MUÑOZEK** urteak bete ditu apirilaren 16an. Zorionak munduko birramona politenari bere 94. urtebetetzean Olaia eta Xumairen partetik. Muxuak.



Ornoz-Mugairiko **MAITE** **USTARROZ** **ALZUARTEK** apirilaren 15ean 7 urte bete ditu. Muxu haundi bat familia osoaren partetik, eta berexiki Paula ahizparen partetik. Zorionak printzesa!



Zorionak **SUHAR**. Bi urte bete dituzu, laster handi-handia izanen zara. Zorionak guraso, aitaxi-amaxi, aiton-amona eta izeba-osabaren partetik. Paaaaa handi bana zuretzat airean doa, harrapatu e!



Doneztebeko **BEÑAT TELLETXEA** **GOGORZAK** urtea bete du apirilaren 17an. Zorionak Ezkurrako Margarita birramona, amatxi eta izeba-osaben partetik. Eta muxu potolo bat Urko lehengusu tikiaren partetik.



JULEN JUANIKOTENA BORDA elizondarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak osaba-izeben eta berexiki amatxi, Laura, Oier, Iker eta osaba Fernandoren partetik. Ongi pasa eta lau muxu haundi denon partetik.



Mourinhok **PETRI** fitxatu du Real Madrilerako. Maiatzaren 2an 28 urte beteko ditu eta zorionak!



Urdazubiko **PABLO** **OLAIZOLAK** apirilaren 18an urteak beteko ditu. Zorionak auniz aitaxi, Sunbillako Pablo bihurriaren partetik, familia eta zure izeba Asunzionen partetik.



Sunbillako **JOKIN** **PETIRENA** **ARRETXEAK** apirilaren 26an urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guztiaren partetik, baina berexiki Ibai, Iraide eta Garaine iloba tikiaren partetik. Ongi pasa eguna, osaba Jokin. Mila muxu.



Sunbillako **MARIKRUZ** **GOROSTERRAZU** **ELZALDEK** urteak beteko ditu apirilaren 30ean. Auniz urtez familia guztiaren partetik, baina berexiki argazkiko hiru bitxito horien partetik. Ongi pasa eguna, amatxi, eta 60 mila muxu.



Iturengo **MANUEL BAZTERRIKA** eta **HILARIA MUTUBERRRIA** apirilaren 17an 60 urte bete dituzte ezkondurik. Zorionak eta besarkada haundi bana bie, beren seme-alaba, iloba-biloba eta bai hiru birbiloba diren Iñaki, Xumai eta Ohiaren partetik ere.



Elizondoko **JANIRE SAROBE** **SANSIRENAK** urtea beteko du apirilaren 28an. Zorionak pittujina, muxu potoloak etxekoan partetik eta haundi haundiena Garaziren partetik.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en.



aldizkariari - interneten





inprenta lanak egiten ditugu ideiatik hasi eta etxean izan arte



bisita txartelak / egutegiak
1.000 ale → **85€**
formatu 4+4, 300 g. BEZ barne*



boletoa / orriak
8.000 ale → **160€**
zuri beltzean, 1 v0. BEZ barne*



Eskatu
informazioa:
948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

*Eskaintza horiek baliu dituzte
2012ko apirilaren 30a arte



fakturak / orriak
1.000 A4 → **86€**
koloretan, 90 g. BEZ barne*



kartazakiak
1.000 ale → **107€**
zuri beltzean. BEZ barne*




Inguru honetako etxe guztietan
zure negozioaren
berri izatea nahi baduzu,
jar zaitez gurekin harremanetan
eta milaka pertsonak
irakurriko dute
zure anuntzioa

Den-dena eskura eduki nahi baduzu,
Ttipi-Ttapako TELEFONO GIDAn
aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak:
profesionalak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak,
partikularren telefonoak... Denak.
Informazio osoa goltik behera gaurkotua,
erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua

Publizitatea kontratatatzeko azken epea: **apirilak 27**

TELEFONO GIDA 2012



Tel. 948635458 | e-posta: publi@ttipi.net
Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkari musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

563. ALEKO IRABAZLEAK

- * KATXIPORRETA PUPU ETA LORE CD
Patxi Moreno Garra | BERA
- * ELKAR 2 LIBURU
Letrak Eluritan + Zorionak, Marko
Itxaki Pikabea Zubieta | BERA
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Juan J. Maistorena Sarateña | LEKAROZ
- * ONINART KAMISETA
Fernando Martín Ibarra | DONEZTEBE
- * ARKUPE TXOKOLATE LOTEA
Ana Bolen Sarateña Elizalde | ELIZONDO
- * LESAKAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA
Merbue Etxepare Arretxea | LESAKA

zozketak

AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumas.com



PUNPALAPLAN CD + DVD
Urtxinbca eskola
www.urtxinbca.org

deskontuak

BERAUTO



BERA | %5 errekanbioetan



LESAKA
%10 leintzerian

Kattalingorri
arropa denda



LESAKA | %10eko deskontua

POTTOKI



ELIZONDO
%5 oparitzeko artikulu txuketan



FOTO MENA ELIZONDO

ELIZONDO | %10 kopia digitaletan



DONEZTEBE
%10, 30€tik gorako gastuan

Lanku



LANKU MAHAJ JOKOA + CDA
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

onddo
tu punto



KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



POSADA
OITZ



2 LAGUNENDAKO OTORDUA
Posada Oitz
www.posadaoitz.com

erein
argitaletxea



2 LIBURU
Erein Argitaletxea
www.erein.com

ttipi-ttapa

Anduetzeta 12. 31760 ETXALAR
Tel: 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net